


XIII. urtea - 146. zk. 2005eko otsaila

> **Q** **EU**
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA


garoña

arriskua
etxe ondoan



frankeo itundua 48/27

M Bhi



ELKARREKIN AURRERA

Geure izate kulturala ezagutuz eta onartuz, mundua ezagutzeko eta hobea egiteko dihardugu lanean.



MENDEBALDEA
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

DBH-ESO

BATXILERGOA

945179622

010329aa@hezkuntza.net



tokieder ikastola
GASTEIZ

Tokieder Ikastola

D eredua

Kalitatezko hezkuntza euskaldun eta integrala

Jantokia, ingelera 4 urtetik aurrera, ekintza osagarriak, informatika gela, sikomotrizitatea, guraso eskola

2005-2006 ikasturterako
izen-ematea otsailean

Wellingtongo Dukearen kalea 6,
Lakua 01010 Gasteiz
Telef/faxa: 945 171 210
tokieder@euskalnet.net

GEU Elkartearen ekimenez
sortua (1992)

Geu aldizkari taldeak egina,
bideratua eta kudeatua

Erredakzioa:

Pedro Asua, 2 - 3.a. - 01008
Gasteiz

Tfnoa. eta Faxe:

945 22 21 53

e-mail:

geugaste@grn.es

Zuzendaria:

estixu breñas glz. de zarate

Aldizkari batzordea:

josune velez de mendizabal, edorta sanz,
edurne begiristain, estixu breñas eta
david alvez

Kazetariak:

josune velez de mendizabal, edurne
begiristain, saioa fdz. de arangiz

Argazkiak:

edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa:

estixu breñas glz. de zarate, david alvez

Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:

estixu breñas glz. de zarate

Itzulpenak:

edurne begiristain, estixu breñas, aztiri

Maketa:

patirke sanz eta david alvez

logoa:

io grafix

komikia:

iñigo sarasola

Kolaboratzaileak ale honetan:

kike amonarriz, jon arretxe, maite lekue,
gustavo barron, alfredo ibarra, erlantz
urtasun eta gamarrako ostalaritza eskola.

Publizitatea eta Banaketa:

edurne begiristain

Sustapen-harpidetza saila:

edurne begiristain, estixu breñas glz. de
zarate eta maite lekue

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92



ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago. Geu
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Euzko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Arabako Foru Aldundia



GARA GARAIA

GEU ALDIZKARIA zure

etxean jasotzeko bidea

HARPIDETZA da.

Urte osoko kuota: **18 euro.**

(telefonoz - e-mailez)

AHORIK-AHO



7-9

iosu sarriegi,
alaves taldeko futbolaria



10-11

javi alonso:
malefici alavae 1598
liburua



12

euskaltasunean lagun
bittor gonzalez

13-15

EHE. 25 urte

urko aierbe, arabako arduraduna



GAIKA

17-19

garoña & arriskua



20-21

arabako
txakolina



22-23

lurrazpiko kondaira
CD-ROMa



23

jon aizpuru VI. omendaldia
jesus obrero ikastetxea

HAN-HEMENKA

-iritzia (4)

kike amonarriz

-kaleak dio (6)

ihauteriak

- idazleen zutabea (6)

jon arretxe

KULTURAI SAIALDIARI SO

-AGENDA (25)

-HISTORIA ZERTZELADAK (26-27)

Gasteiz eta Bilbo trenbidez lotu... *gustavo barron*

-ARTE TXOKOA (28-29)

eskultura: *millan fdz de garaialde*

-BIDAIA (30)

tunisia

-ARABA BIXOTZIAN (31)

alfredo ibarra

-BERTAKOARI SO! (31)

erlantz urtasun

-ERREZETA (32)

zapo errea garaiako barazkiez

-GEUren ekintzak / Languanet (33)

-KOMIKIA: tink (34)

Azala ...

Garñoñaren egungo egoera eta arriskuez
gehiago jakin nahi izan dugu, eta
horretarako Eguzki talde ekologistak eta
Garñoñarik Gabeko Araba plataformak
emandako datuetara jo dugu.



argazkia: eguzki



Hizkuntzaren kalitatea Gasteizen

→ Kike Amonarriz

Euskararentzat alor, eskualde eta hiztun berriak irabaztea izan da, orain arte, hizkuntza normalizazioaren alde jardun dugunon kezka nagusia. Egoera minoritarioan dagoen hizkuntzaren hedapenak, ordea, kalitatearen galera dakar ezinbestean. Hori dela eta, lehengo kezka zaharrari, hedatzen ari garen euskararen kalitateari dagokiona gehitu zaio.

Euskararen Aholku Batzordearen eskariz "Euskararen kalitatea"ri buruz landu dugun txostenaren arabera, hizkuntza kalitateak hiru maila ditu: Egokia (helburu komunikatiboak betetzen dituena), jatorra (senari darraiona) eta zuzena (behar den kasuetan, araua betetzen duena). Euskara ona, aldi berean egokia, jatorra eta behar denetan, zuzena dena da.

Baina, hizkuntzaren funtziorik behinena komunikatzea izanik, euskararen normalizazioa erabatekoa ez den bitartean, elkarren arteko lehia egon litezke

ezaugarriok eta horrelakoetan, egokitasunari eman behar genioke lehentasuna; are gehiago, Gasteiz bezalako guneetan. Helburua, ez baita Gasteizko haur eta gazteek euskararen gramatika eta paradigmak ongi ezagutzea, beraien sentimenduak, ideiak eta bizipenak euskaraz adieraztea baizik.

Ingurune erdaldun-
duetan gainera, egokitasunetik bideratutako hezkuntza, askoz ere motibagarriagoa izango zaio ikasleari, komunikatzeko baliagarriagoa gertatzen zaion neurrian.

Izan ere, Pernandoren egia dirudien arren, erabiltzen den euskara kalitate onekoa izan dadin ezinbestekoa da euskara jakin eta erabiltzea. Eta Gasteiz bezalako guneetan, euskaraz hitz egiten ahalegintzea, berez da egokia. Ibon

Sarasolak urtarrilaren 16ko Argian zioen bezala: "Nahiago dut gazteek egin dezatela euskara infamea erdarara pasatzea baino".

Ikuspegi honetatik, aintzat hartu beharreko faktoreetako bat, hiztunaren gaitasuna da (euskaldun berri-berria den...), bestela ez baitago darabilen euskara egokia den edo ez erabakitzerik. Nolanahi ere, euskara normaldu ahala desagertu beharreko faktorea litzateke hau.

Eta askotan aipatu dugun bezala, hizkuntza kalitatearen gako nagusia erabileran dago. Erabiliaren erabiliz lortzen da hitz eta esamoldeen adierazkortasuna eta indarra, segurtasun linguistikoa edo eraginkortasuna komunikazioan.

Eta ez pentsa kezka hau berria denik. Azken urteotan berrindartu bada ere, gerraurreko belaunaldian ere, bazen hizkuntzaren kalitateaz kezkatzen zenik. Esate baterako, Raimundo Olabide euskaltzale gasteiztarraren Bibliaren itzulpenaren inguruan, oso iritzi kontrajarriak azaldu ziren. Denek aitortzen diote ordea, hizkuntzaren alde egin zuena "euskara hain ongi ikasteaz gainera horrenbesteko lan ikaragarria egin zuelako". Mitxelenak berak, "hizkuntza eredutzat" hartzen du, ez ordea gidaritzat. Esan dugunaren adibide da beraz, Olabide bera.

Gasteizen bertan, hizkuntzaren ezagupenean nabarmen aurreratu bada ere, normalizazio prozesuan hutsune handiak eta larriak ditugu oraindik. Erronka berriak beraz, maila bat gora igo behar ditugu. Eta hizkuntza kalitatean aurrera egiteak, besteak beste, euskararen ezagupena orokortzea, erabilera esparruak indartu eta zabaltzea, herritarren eta gizarte sektore desberdinen euskararekiko jarrera positiboa lantzea eta euskararen irakaskuntza egokitasunaren ikuspuntutik bideratzea eskatuko digu.

Gasteizen bertan, hizkuntzaren ezagupenean nabarmen aurreratu bada ere, normalizazio prozesuan hutsune handiak eta larriak ditugu oraindik

otsaileko hitzordua: korrika kulturala. gasteiz

14.
korrika *æek*
Euskal Herria euskalduntzen



ORREAGA-BILBO'05

URTARRILAK 28:

"TRANGADER" taldearen kontzertua.

GAZTETXEAN, 22:00etan

URTARRILAK 29:

MUS TXAPELKETA

BAGAREN, 16:00etan

OTSAILAK 2:

"LAOS BIZIKLETAZ" diapositiba emanaldia

ALDABEN, 20:00etan

OTSAILAK 7:

LABURMETRAIAK EUSKARAZ

MIKELDI ZINEMETAN, 20:15ean

OTSAILAK 8:

AEK-KO INAUTERI JAIA

GAZTETXEAN, 20:30ean

MUNDUA ZAZPI KOLORETAN. Diaporama.
JON ARRETXE, *GEU ELKARTE*Aren eskutik

PARRALEN, 20:30ean

OTSAILAK 9:

"EZEKIEL" antzezlan

HEGOALDE GIZARTE ETXEO ANTZOKIAN,
20:30ean

OTSAILAK 10:

"EMAKUME IDAZLEAK EUSKAL LITERATURAREN
HISTORIAN"

HIKAATENEON, 20:00etan

OTSAILAK 11:

BERTSO-JAIALDIA

(Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Igor Elortza,
Ametz Arzallus, Xabier Silveira eta Asier Otamendi)

ALDABE GIZARTE ETXEO ANTZOKIAN,
20:00etan

Antolatzaileak: GAUEKOAK & ARABAKO
BERTSOZALE ELKARTEA

OTSAILAK 12:

ESKOLARTEKO PILOTA TXAPELKETA

OGETA & MENDIZORROTZEKO
PILOTALEKUETAN, GOIZEZ.

XAKE TXAPELKETA

BAGAREN, 16:00etan

OTSAILAK 13:

THE HECKLER taldearen kontzertua

GORA taberna, 20:00etan

OTSAILAK 14:

LABURMETRAIAK EUSKARAZ

MIKELDI ZINEMETAN, 20:15ean

OTSAILAK 16:

"EUSKAL HERRIA ILARGIPEKO ABERRIA"
diapositiba emanaldia

ALDABEN, 20:00etan

OTSAILAK 17:

"HIRU TRUKU"

BEÑAT ETXEPARE ANTZOKIAN, 20:30ean

OTSAILAK 19:

KORRIKA TXOTX. DENOK SAGARDOTEGIRA!!!

OTSAILAK 23:

"EUSKARAREN ZAZPI BEKATUAK" antzezlan

PRINCIPAL ANTZOKIAN, 20:30ean

OTSAILAK 24:

EUSKALGINTZAren gaineko mahaingurua

ALDABEN, 20:00etan

OTSAILAK 25:

EDU ZELAIETA & MUGALDEKOAK poesia & musika

GORA taberna, 20:30ean

OTSAILAK 26:

PARTXIS TXAPELKETA

BAGAREN, 16:00etan

MARTXOAK 4: KORRIKA GALA

AZKENA ARETOAN

Ihauteriak

Negua iritsi da eta urtaroko ospakizun bero eta alaiena Gasteizko kaleak jantziko ditu otsaileko lehen asteburuan. Ihauteriak heldu dira!

Tradizioz betetako jai paganoa dugu; trapu zaharrak ateratzeko garaia eta itxuraz aldatzeko parada ezin hobea.

- 1.-Ihauterietan mozorrotzeko asmorik? Zertaz?
- 2.-Mozorroa eskuz eginga ala eresia izango da?
- 3.-Ba al dakizu ihauteriaren ospakizuna nondik datorren?

Edurne Fdz de Larrea, ikus-entzunezko teknikoa

1) Aurten ez, koadrilarekin landa-etxe batera joateko asmoa baitut. Dena den, azken mementoan bertan mozorratzeko aukera badago. Ez dakigu oraindik.

2) Normalean, mozorratzen garenean eskuz egiten ditugu jantziak. Urte bakoitzean ipuin bat aukeratu izan dugu eta lagun bakoitzak ipuinaren pertsonaia baten mozorro-jantzia egin ohi du.

3) Jai paganoa dela badakit, baina ez dakit zergatik ospatzen zuten.



Lara Heras, ikaslea

1) Bai, beste hiru lagun eta laurok erle mozorroa jantziko dugu.

2) Aurten lehenengo aldiz egingo dugu guk jantzia eskuz. Aurreko urteetan, berriz, beti eskatu ditugu.

3) Ez. Ideiarik ez!



Xabier Lopez de Robles, ikaslea

1) Bai, ziurrenik ganster mozorroa jantziko dut lagunekin.

2) Iaz adibidez, emakumez jantzi ginen eta arropa guztiak utzi zizkiguten. Aurten, aldiz, jantzia erostea pentsatu dugu.

3) Egia esan, ez nago oso ziur. Baliteke Erdi Aroko tradizioa izatea.



Jon Arretxe

TANKE

Krosaren amaieran oparitxo ugari banatzen ari ziren korrikalarien artean, helmugako marra zeharkatu ahala: kamiseta, zuku-kutxatxo, boligrafoa, linternetxo...

Oharkabea, jende-ilara luzeari jarraituz, oparirik kilikagarriena jaso barik pasatu nintzen: sobresorpresaren horietariko bat. Hutsuneaz jabetuta, atzerantz itzuli eta horretaz arduratzen zen neskaengana jo nuen:

-Aizu -esan nion irribarretsu-, niri ez didazu horrelako papertxorik eman.

-No te entiendo, háblame en castellano... -erantzun zidan, irribarre barik-, o en alemán.

Txarra naiz berehalakoan erreakzionatzen, geldo samarra erantzun bizkor eta zorrotzak ematerakoan, eta, jendetza artean trabarik ez egitearren, kristaueraz errepikatu nion eskaria, tonto aurpegiak ziurrenik, eta, papertxo eskuratuta, aurrerantz jarraitu nuen.

Gero bai, denbora pasatu eta lagunekin jazoera komentatu ahala, hamaika erantzun egoki bururatu zitzaizkidan neska jakintsu harentzat, arrazonamendu zuzenetik biraorik handienera. Beranduegi zen, baina. Azkenean euskaldunok hain sarritan sumatzen dugun frustrazio-amorru-gorrotoko hori irentsi behar izan nuen.

Izan ere, zer adierazi nahi du Euskal Herrian "háblame en castellano o en alemán" esaldiak? Hizkuntzaren bat ikastekotan nahiago dut ingelesa edo alemana ikasi? Euskarak ez du ezertarako balio? No me toques las pelotas con el puto euskera?

Bilbon gertatu zen pasadizu hau, baina berdin-berdin gerta zitekeen halakorik edo antzekorik Euskal Herriko beste edozein bazterretan, edozein denda, taberna edo bulegotan geure hizkuntza erabiltzen saiatuz gero.


Ez du gehiago luzatzea merezi, ni neu, behintzat, nahikoa erreta nago eta horrelakoekin.

Portzierto, zer ustekabeko opari neukan zain ditxosozko sobresorpresaren barruan? Ohiko esaldia, ohiko hizkuntzan:

"Vuelva a intentarlo".

iosu sarriegi, alaveseko jokalaria

**“Oraindik
harritzen naiz
euskara entzuten
dudanean
Gasteizko
kaleetan”**



AURTEN ALAVESEK 1. MAILARA IGOTZEA DU HELBURU. ASMO HORREKIN HARTU ZUEN KLUBA DIMITRY PITERMAN UKRANIARRAK. JOKALARI GARRANTZITSU ETA EZAGUNAK FITXATU EGIN DITU; CHUCHI COS ENTRENATZAILEA ERE BAI; BAITA ZEUDEN JOKALARI INPORTANTEEI KONTRATUA LUZATU ERE. JOKALARIEN ARTEAN IOSU SARRIEGI LAZKAOKO GAZTEA DUGU; AURREKO DENBORALDIAN JOKALARI UKAEZINA. AURTEN POLIKI-POLIKI BERE POSTUA BEREGANATZEN ARI DA ATZEKO LERRO HORRETAN OSCAR TELLEZEKIN BATERA. IBAIAKO ALDAGELETAN ATSEGIN HANDIZ HARTU GINTUEN HORRETAZ ETA BESTE HAINBAT GAUZAZ MINTZATZEKO.



20 URTEREKIN GASTEIZERA ETORRI ZINEN ALAVESEN JOKATZERA, ZE GOGORATZEN DUZU UNE HAIETATIK?

Aldaketa handia izan zen niretzat, oso gaztea nintzen eta gainera dena espero gabe gertatu zen. Alavesekoak etorri ziren eta hori beti erakargarria da, gainera lehenengo ekipoa 1. mailan zegoen. Pauso handia izan zen niretzat. Oso ilusionatuta etorri nintzen. Gogorra ez zen izan etxetik kanpo bizitzea, pisuan beste taldeko batzuekin nengoen eta oso ondo, giro oso ona geneukan.

ETA HANDIK GUTXIRA, 2001EAN, ALAVESEK BERE HISTORIAN IZAN DUEN DENBORALDIRIK GARRANTZITSUENA...

Urte hori izugarria izan zen, oso zaila baita lehenengo maila edo 1. taldera iristea. Karmonak lesio bat izan zuelako igo ninduten 1. taldera, debuta egin nuen, gero UEFA..., eta finala... benetan oso urte ahaztezina.

EIBARREN PASATU ZENUEN URTEBETE, OSO DESBERDINA AL DA ALAVESEN EDO EIBARREN JOKATZEA?

Bai, den-dena, aldagelatik hasita, zuk pentsa, gehienak, bost edo kenduta, euskaldunak ginen. Hori asko nabarmen-tzen zen giroan. Atzerritarrik ez zegoen; giroa oso ezberdina da.

AURTEN IA-IA ENTRENAMENDU GUZTIETARA JOKALARI BERRIAK AGERTU DIRA OSO DENBORA GUTXIAN EGOTEKO, NOLA DARAMAZUE JOKALARIEK EGOERA HORI?

Ba, egia esan, normala ez da. Fitxarekin gaude jokalaria asko, 24 edo 25, eta gero astero norbait dator, egun batzuetarako, eta bat-batean ez dago. Lan egiteko orduan eragina du horrek, eritmoa ez da iguala, hainbeste jendekin ezin duzu partidua ondo prestatu, baina gauzak horrelakoak dira eta aurrera.

GAINERA ZURE KASUAN, IA DENBORALDIA HASI ZENETIK, KLUBA BETI EGON DA BESTE ZENTRALEN ATZETIK...

Hori zaila da, gainera lesio batetik ateratzen ari zarenean zu beti zaude hor lanean ekipoa sartzeko, eta beti zurrumurru horiek, ea bi zentral ekarri nahi dituzten, ez da pozgarria. Baina dagoena da eta eraman behar.

DENA DEN, ZUK 2007RA ARTE DAUKAZU KONTRATUA?

Bai, hala da, alde horretatik lasai nago. **DIMITRY PITERMAN PRESIDENTEA, ESAN DEZAKEGU, GUTXIENEZ, BITXIA DELA. NOLAKOAK DIRA BERAREKIN DITUZUEN HARREMANAK?**

Presidente arrunta ez da; presidentek normalean bulegoan egon ohi dira eta gurea, aldiz, gurekin dago entrenamenduetan, berak zuzentzen ditu Chuchirekin batera. Partiduetan ere, hor dago, aulkian. Entrenatzaile batekin daukazun harremana antzekoa da. Esan dezagun harreman hori gertuago dela.

GERO, BULEGO KONTUAK EGIN BEHAR DITUZUENEAN, BERDIN IZANGO DA HARREMAN HORI?

Ez dakigu, auskalo, oso arraroa da, benetan, ...beno, mementoz gauzak ondo daude; gero gerokoak.

HAINBAT ALDAKETA SUERTATZEN ARI DIRA KLUBEAN; LEHEN ZEGOEN JENDEA BOTA

DUTE, EDO KARGUA UTZI DUTE..., HORIETAZ EKIPOAN MINTZATZEN DUZUE?

Beno bai, komentatzen da, batez ere hemen denbora gehiago daramagunon artean. Alde horretatik orain Alaves berri-berria da.

DENBORALDI ERDIALDEAN GAUDE, ARGI IKUSTEN DUZU ZEINTZUK IZANGO DIREN IGOTZEKO HAUTAGAIK?

Orain goian gauden taldeak, Cadiz, Elche, Celta, Valladolid eta gu, hor egongo gara; agian sor daiteke iazko Getafe antzeko beste talde bat. Baina nik uste bost talde horien artean egongo dela kontua.

KALEAN JENDEAK PENTSATZEN DU EGINA DAGOELA, AURTENGO IGOERA IA LORTUTA DAGOELA, HORI ONA DA TALDEAREN ZAT EDO EZ?

Ondo dago jendea horrela egotea, animatuta, baina guk jakin behar dugu hau ez dela erraza; gauzak mementoz ondo doaz, baina hamar partidu falta direnean eta oraindik igoera ziurtatuta ez badago, jendea urduritzen hasiko da, eta hori arriskutsua izan daiteke... jokalaria jakin behar dugu ez dela erraza izango igoera lortzea.

Iosu Sarriegi Zumarraga

79-01-19 • Lazkao (Gipuzkoa)

Atzelaria • 185 cm eta 83 kg

Ibilbidea

1998 - 99 / BEASAIN

1999 - 02 / ALAVES B

2002 - 03 / EIBAR (utzita)

2003 - 05 DEPORTIVO ALAVES

1. mailan debuta: 2001-02-18, El Sadarren Osasunaren aurka





DI-DA

-Noren kontra gustatuko litzaizuke jokatzeari?

Athleticen kontra, San Mamesen.

-Eta aldamenean zein jokalarirekin?

Ez dakit, agian Puyolekin, baina Oscarrekin oso ondo moldatzen naiz.

-Athletic edo Errealara?

Errealara.

-Aukera izanez gero, zein ligatan jokatu zenuke?

Ingalaterra edo Eskoziakoan. Dagoen giroagatik eta ingelesez ikasteko.

-Hiri bat bizitzeko?

Gasteiz bera.

-Eta oportetara joateko?

Ez dakit, ez ditut asko ezagutzen.

-Ametsen bat?

Ez dakit, beno bai, independentzia.

-Helburua?

Igoera.

-Futboleant izan duzun une goxoenak?

UEFAko urtea.

-Eta txarrena?

Lesio luzea izan nuenean.

Oso ondo bizi gara futboleant gauden bitartean

-NOLAKOA DA IOSUREN BIZITZA GASTEIZEN, ZERBAIT BEREZIK EGITEN DUZU FUTBOLETIK KANPO?

Normala, gauza handirik ez dut egiten. Astebukaeran askotan neska edo anaia etortzen dira eta hortik ateratzen gara bueltatxo bat ematera, zinemara joan, normalean jende guztiak dituen hobbiak... Hortik aparte sukaldaritza gustatzen zait, hor nabil zeozer ikasten.

-SEI URTE DARAMAZU HEMEN, USTE AL DUZU EUSKARAZ BIZI DAITEKEELA GASTEIZEN?

Ez, ez. Askotan kaletik noa, euskara entzuten dut eta burua biratzen dut harrizten naizelako; ia arraroa egiten zait entzutea. Oso gutxitan ikusi ditut gurasoak seme-alabekin euskaraz mintzatzeko. Hori botatzen dut faltan.

-GEU ALDIZKARIA EDO ELKARTEAREN BERRI?

Ez, ez, orain arte ez nituen ezagutzen.

-ZEIN DA ZURE USTEZ GASTEIZEN DUEEN GAUZARIK AIPAGARRIENA?

Daukan giroa, erdialdetik ibili eta jendartean dagoen giroa. Eta Alde Zaharra asko gustatzen zait, pintxo bat jatera joan...

-ETA GUTXIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?

Ba agian euskara falta hori.

-LAGUNAK EGITEN DITUZU GASTEIZEN, FUTBOLETIK KANPO?

Bai, beno, gehienak futbolarekin lotuak, ez futboleant daudelako, eskumendekoan lagun bat neukan eta horren bidez hainbat lagun ezagutu nuen...

-FUTBOLEAN ERRAZA DA LAGUNAK EDO LAGUN MINAK IZATEA?

Egiten dira lagunak, eta baita lagun minak ere. Nik sei urte daramat hemen eta pentsa

zenbatekin egon naizen, igual ehundik gora. Lagun minak hamabiren bat izango dira, baina hori normala da, beti zaude aldaketekin... eta ezin duzu denekin kontaktua mantendu.

-PARRANDA NON, GASTEIZEN EDO BESTE LEKU BATEAN?

Gasteizen asko, gustatzen zait asko, ez asko egiten ditudala. Lazkaon adibidez, jaietan ondo; gero asteburutan ez dago giro handirik...

-EGITEKOTAN NOREKIN, TALDEKO JENDEAREKIN EDO BESTE LAGUNEKIN?

Normalean kanpoko jendearekin, niri gustatzen zaidan giroa ez zaio jende askori gustatzen eta.

-USTE AL DUZU EGUN FUTBOLARI BATEN BIZITZA EROSOA DELA?

Bai, ordutegia eta halakoak aztertzen badituzu, bai. Oso ondo bizi gara futboleant gauden bitartean, baina horrek normalean gutxi irauten du, futbolari baten ibilbidea motza da. Gauza da larogei 'kilo' irabaztea edo lau; orduan etorkizunean beste kontu bat egin beharko da.

-ZUK PENTSATU AL DUZU NOIZBAIT ZER EGINGO DUZUN FUTBOLA UTZI ETA GERO?

Idearik ez. Ingeniaritza ikasten hasi nintzen, Donostian egin nituen bi urte eta ondo, baina Gasteiza etorri nintzenean, desastre, bukatu ziren ikasketak.

-ASTELEHENETAN EGUNKARIEN BILA JOAN OHI AL ZARA EA ZUTAZ ZER DIOTEN IKUSTEKO?

Aukera sortzen bada ikusten ditut, baina ez noa kioskora egunkari guztiak erostera. Egunkariak erosi horretarako ez.

arabako sorginak

'MALEFICI ALAVAE 1598'

liburua

JAVIER ALONSO, egilea:

"Kontatzen
dudan guztia jazo
ez bazen ere,
gerta zitekeela
esan daiteke"

edurne begiristain
argazkiak: edorta sanz

SENDABELARRAK. ETORKIZUNA ASMATZEN
LAGUNTZEN DUTEN LANDAREAK. BEGIZKOA
EGITETIK BABESTEN DITUZTEN BELARRAK. LANDARE
MAGIKOAK, LAGUNGARRIAK, SENDAGARRIAK.
XVI. MENDEAREN BUKAERAN, SORGIN-EHIZA ETA
INKISIZIOA EUSKAL HERRIAN BIZI-BIZIRIK ZEGOEN
GARAIAN, LANDARE HORIEK MAIZ ERABILTZEN
ZITUZTEN HERRITAR ASKOK. GAI HORRI HELDU
DIO JAVIER ALONSO (GASTEIZ, 1961) IDAZLE
GASTEIZTARRAK BERE LEHEN ELEBERRIAN. *MALEFICI
ALAVAE 1598 (HECHICEROS ALAVESSES 1598)*
LIBURUA (ARABERA KULTUR TALDEA, 2004)
ARABAN KOKATUTA DAGO, GURE HERRIALDEAN
ERE IZAN EI ZELAKO LANDARE MAGIKOAK ERABILI
ZITUEN SORGIN ETA AZTIRIK.

- ZURE LEHEN ELEBERRIA DA. NOLA SORTU DA LIBURU
HAU EGITEKO IDEIA?


Liburuaren sorrera nahiko bitxia izan zen. Izan ere, hirugarren adinari eskainitako jardunaldi batzuen barruan hitzaldi bat eskaini nuen 'Sorginkeria eta landareak Euskal Herrian' izenburupean. Ondoren, bertan egondako kazetari batek deitu egin zidan elkarrizketa bat egiteko asmoz. Egunkariko editore batek elkarrizketa hura irakurri omen zuen, eta hitzaldian esandakoa liburu batera eramateko proposamena egin zidan. Gidoi bat bidali nion, entsegu antzeko zerbait, eta ez dakit gustuko izan zuen ala ez, baina ez nuen bere berririk izan sekula gehiago. Nik, ordea, liburua ateratzeko grina baneukan barruan sartuta, eta fikzio historikoan murgiltzea erabaki nuen. Eta horrela, hitzaldi hura hainbat narrazio bilakatu egin zen, eta narraziook eleberritxi bat osatu dute.

- LIBURUAN HIRU ISTORIO JASO DITUZU. NOLAKOAK DIRA? ZER KONTATZEN DUZU?

Arabako hiru lekutan kokatutako hiru istorio dira. Lehen istorioa Arabako Mendialdean gertatzen da, Kanpezuko zonaldean; bigarrena Zuian; eta hirugarrena Gaubean jazotzen da. Laburki esanda, esan daiteke zati literario-narratiboak garrantzi gutxi duela, liburuaren funtzio didaktikoa inportanteagoa baita. Izan ere, saiatu egin naiz hitzaldian garatu egin nituen edukiak literaturara eramaten. Hitzaldiaren izenburuak zioen moduan, Euskal Herriko sorginkeriaz mintzatzen naiz, eta sorginkeria horrek landareen munduarekin izan duen harremanaz XVI. mendearen bukaeran. Hitzaldian esaten nuen moduan, lehenik eta behin argitu beharra dago zertaz ari garengatik sorginkeriaz ari garenean. Ildo horretan, liburuan sorginkeria izenpean garai hartan egon ziren zenbait lanbide edo ofizio agertzen dira. Esaterako, begizkoa egitetik babesten dutenak, maitasun kontuetan adituak ziren landarezaleak, pozoinak egiten zituzten alkimistak, asmatzaileak... Nolabait esateko legearen mugan zeuden hainbat lanbidez ari naiz, eta guztiek naturan zeuden elementuak erabiltzen zituzten.

- NORA JO BEHAR IZAN DUZU INFORMAZIO HORI GUZTIA LORTZEKO?

Bibliografia asko erabili dut. Arabako zonaldeko bibliografia zehatza ere bilatu behar izan dut. Liburuan agertzen den guztia ez zen gertatu, baina bai ordea oso antzeko zerbait eta antzeko lekuetan. Eleberrian agertzen den guztia jazo ez bazen ere, jazo zitekeela esan daiteke. Eta horretarako historialariek, soziologoek, fisioterapeutek, etnobotanikoek idatzitako



- XVI. MENDEKO SORGINKERIA ETA INKISIZIOA ERE JORRATU DITUZU LIBURUAN. FENOMENO HAGITZ EZAGUNA IZAN ZEN HORI, BATIK BAT EUSKAL HERRIAN. DATU ZEHATZIK SORGIN-EHIZA EDOTA INKISIZIOAREN INGURUAN?

Gaur egun jakin badakigu neurri batean benetakoa izan zela, gertatu zela, garai hartan egiten ziren edabe batzuk jasotzen dituzten paper-sortak egon badaudelako. Esaterako, 1610. urteko Logroñoko Autoafedeak islatzen du Estatuan sorginkeriaren aurkako epaiketa erraldoia egin zela. Epaiketa horren ondorioz, 1612. urtean Arabako Mendialdeko zenbait emakume abilotu egin zituzten. Honekin esan nahi dudana da akelarreak eta sorginak egon, egon zirela. Emakume horiek batzuetan landareetatik ateratako droga indartsuez egindako edariak hartzen zituzten, eta ondorioz fantasia egoera baten antzekoa sentitzen zuten... Hori guztia liturgiarekin nahasten baduzu, bada akelarreak, sorginkeriak eta denetarik ateratzen zaizu... nola ez ba!

- INKISIZIOAK GOGOR JO ZUEN EUSKAL

HERRIAN. ARABAN, ZEHAZKI, NON IZAN ZEN LATZAGOA SORGIN-EHIZA?

Euskal Herrian toki ugarietan gertatu zen fenomeno hori. Baina are eta indartsuagoa izan zen Ipar Euskal Herrian. Kuriosoki, Logroñoko inkisidore batek gauza esanguratsu bat esan zuen: "Ez zen sorginik egon haietaz idazten hasi zen arte". Alegia, horrek esan nahi du eurak ere ohartzin zirela benetan injustizia bat egiten ari zirela. Errepresioa Euskal Herri osora zabaldu zen. Baina gogorrena Zugarramurdin izan zen: ia 2000 atxiloteta egin ziren, makro-prozesu bat egin zen, eta horrek literatura ugari eragin zuen.

- BUKATZEKO, LIBURU HONEKIN ZER ERAGIN NAHI DUZU IRAKURLEARENGAN? HELBURU ZEHATZIK BA AL DUZU?

Izaera didaktiko garbia duela uste dut. Saiatu egin naiz astuna ez izaten eta irakurlearentzat dibertigarria izan dadin, ludikoa, eta aldi berean zehatza. Nire asmoa da jendeari jakinaraztea gure inguruan ditugun landare askori eta askori erabilera nahiko bitxiak eman zaizkiela mendeetan zehar.

liburuetara jo behar izan dut.

- LIBURUAN ARABAKO HIRU ZONALDE AIPATZEN DITUZU: KANPEZU, ZUIA ETA GAUBEA. ZER DELA ETA HIRU TOKI HORIEK? BERTAN GEHIAGO EGIN EI ZIRELAKO SORGINKERIAK?

Ez, besterik gabe oso gustuko ditudalako aipatzen ditudan zonalde guztiak, lanagatik edo bestelako arrazoiengatik harreman estua izan dudalako toki horiekin.





BIHOTZ HANDIKO MUTILA DUGU BITTOR GONZALEZ. IRIBARREAZ AGURTZEN ZAITUEN 27 URTEKO GASTEIZTARRA, BETI LAGUNTZEKO PREST DAGOEN ADISKIDE ESKAS HORIETAKOA. USTIATU GABEKO ALTXORRA, AKASO????!!!... IKASBIDEA IKASTOLAN EGIN ZITUEN LEHEN IKASKETAK ETA BEHIN AMAITUTA ARTE EDERRAK IKASI ZITUEN BOST URTEZ LEIOAN.

"CICERONE (ATE IREKIAK) PROGRAMA HORIETAKO BATEAN LEIOARA JOAN GINEN ETA FAKULTATE HORRETAN ZEGOEN GIROA GUSTATU ZITZAIDALAKO APUNTATU NINTZEN -AZALDU DU-. HORRETAZ GAIN, GRABATUAN ESPEZIALIZATU NINTZEN, BETIDANIK GUSTATU ZAIZKIT ESKUEKIN GAUZAK SORTZEA". ONDOREN "DISEINU ETA EKOIZPEN EDITORIALEKO" IKASTARORA APUNTATU ZEN, "AURTEN BIGARREN URTEAN NAGO ETA HONEKIN IKASTAROA AMAITZEN DUT". IKASKETAK TABERNARI LANAREKIN TARTEKATZEN DITU BITTORREK ASTEBURUETAN, PARRANDARIK EGITEN EZ DUEN HORIETAN BEHINTZAT!



Bittor Gonzalez, mutil irribarretsua



-BIZIORIK?

Parranda egitea.

-BERTUTEA?

Nire lagunek esan beharko lukete.

-ETA ZER DIOTE ZURE LAGUNEK?

... kar, kar, kar... kalamidade bat naizela... kar, kar, kar.

-ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Preso politikoen senideek eta lagunek milaka kilometro egin beharrak eta euren bizitza arriskuan jartzeak.

-GEU ALDIZKARIA ETA GEU ELKARTEAREN BERRIRIK BAI?

Bai, gainera aurtengo ikasturtean antolatu dituzten Nabaraldeko hitzaldietan egon naiz.

-EGUNKARI BAT?

Gara.

-TELEBISTA SAIO BAT?

Vaya Semanita.

-FILMIK?

Trainspotting.

-JAKI GOXOREN BAT?

Otarrainxkak eta patata frijituak.

-BELDURRIK?

Indar errepresiboei.

-OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Berdin dit, garrantzitsuena lagunarte onenean egotea da eta.

-ETA NORA EZ?

Madrilera...

-LIBURU BAT?

Irakurri dudana azkena, "Historia de Navarra, el Estado vasco".

-KOLORE BAT?

Gorria... gorri gartsua, kar, kar...

-MUSIKA TALDE GUSTUKOENA?

Bi bereziki, Anestesia eta Kuraia.

-GASTEIZEK DUEN ONENA?

Andre Maria Zuriaren Jaiak eta Alde Zaharreko giroa.

-ETA TXARRENA?

Udal gobernua.

-EUSKARAZ BIZI DAITEKE GASTEIZEN?

Hainbat arlotan ezinezkoa da, hala nola, Osakidetzan, hezkuntzan edota justizia arloetan.

-ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Euskal preso politikoa kalera, amnistia osoa.

-AMETS BAT?

Hainbat euskaldun armak hartzera eraman dituen arrazoa behingoz desagartzea.

-BOTA DIZKIZUTEN AZKEN LORAK

Kar, kar... haxe (eta sakeleko telefona ateratu du): "2005erako zure horoskopoa irakurri dut eta osasunean izarrek irribarrez agurtzen zaituzte, diruan izarrek irribarrez agurtzen zaituzte, eta sexuan izarrek barrez lehertzen dira. 2005 urte zoriontsua!".

-AZKEN NEGARRA?

Alkiza Athletic-ek fitxatu zuenean... kar, kar..., baina azkenaldi honetan ez dut gogoratzen.

-ETA AZKEN BARREA?

Gaur bertan, elkarrizketa honetan.

URKO AIERBE, EHeren arduraduna Araban: "Gasteizen euskarak eman dituen aurrerapausoak nabarmenak dira"

ABENDUAREN 18AN IRUÑEKO
ANAITASUNEAN EGINIKO EKITALDI
NAGUSIAREKIN EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ TALDEAK BERE 25.
URTEURRENAREN OSPAKIZUNAK
BOROBILDU ZITUEN. URKO AIERBE,
ARABAKO EHĒREN ARDURADUNA
TALDEAREN NONDIK NORAKOEZ,
LAN ILDOEZ, IBILBIDEAZ ETA
ETORKIZUNAZ ARITU DA.




josune velez de mendizabal
argazkiak: edorta sanz & ehe

NOLAKOAK IZAN ZIREN EHEREN HASTAPENAK?

Testuinguru berezi horretan, trantsizio garaian alegia, sortu zen. Frankismotik atera eta euskarak jasotako errepresioa eta jazarpena ikusita egoera berri bat irekitzen zen euskara bera eta euskaltzaleontzat. Hala eta guztiz ere, lehen memento batean alderdi politikoek euskarari lehentasuna ez ziotela ematen ikusi zen, ez marko juridikoan, ezta eguneroko bizitzan ere. Horregatik, behar horrek eraginda, herriz herri, arduradunek eta alderdiek euskararen aldeko neurriak ezar zitzaten, Euskal Herrian Euskaraz taldeak deitzen zirenak sortu ziren. Hasiera ofiziala edo, Durangon izan zen 1979. urtean agiri baten irakurketarekin; agiri hau oso kritikoa izan zen batez ere alderdi abertzaleekin euskarari lehentasuna ez ziotelako ematen.

ORDUTIK GARAIK ALDATU DIRA. EHEREN HELBURUAK BERDINA IZATEN JARRAITZEN AL DU?

Egia da gizartea 25 urte hauetan asko aldatu dela, baina guk egiten dugun irakurketaren arabera funtsean euskararen egoera bere horretan mantentzen da. Hau da, nahiz eta euskara hainbat lurraldetan eta legetan ofiziala dela onartu, egunerokotasunean hori ez da aplikatzen. Hortaz, eta abiapuntu horretatik, hainbat datuk adierazten digute minimoaren azpitik gaudela oraindik, eta nahiz eta urteotan urratsek aurrera egin horrek ez du esan nahi euskara normalitzatzeko egoeran gaudenik. Aurrerapausoak eman direnik ezin uka, baina azkenengo garaian moteltzen ari da eta hortaz, ez gaude duela 25 urte bezala, baina ezta euskara bermatuko duen gutxiengo batetik haratago ere. Gauzak horrela, EHEK filosofia berekin jarraitzen du. Euskal Herria euskalduna behar dugu eta horretarako talde dinamizatzaile baten beharra ikusten dugu, hau da, mobilizazioak eta ekintzak egingo dituen eta eremua herria duena. Herriz herri eta azuoetan dauden EHEko



25. urteurrenaren baitan Iruñeko Anaitasuna kiroldegian egindako ekitaldi nagusia

talde ezberdinak beraharrezkoak dira euskalgintzaren baitan eta bertan dauden beste hainbat talderen lanarekin uztartuz. **URTE HAUETAN GUZTIETAN HAUSNARKETA EGINGO ZENUTEN, ZEIN ONDORIO ATERA DITUZUE?**

1997/98 urteen bitartea inflexio data izan zen. 90. hamarkadan krisi batean sartuta zegoen EHE, bai ideologikoa zein antolaketa aldetik. Batetik, helburuen gainean zalantzak zeuden eta bestetik, talde asko desagertu ziren eta militantziak behera egin zuen. Egoera horri buelta emateko eta horren kontrako neurriak bilatzeko hausnarketa prozesuan sartu ginen. Ondorioz, helburu berarekin jarraitzea erabaki zen, hots, Euskal Herria euskalduna. Baina hori

lortzeko tarteko helburuak ere zehaztu ziren. Gure hizkuntza eskubideak bermatuko zituen marko juridikoan eragin behar genuen eta horretarako arloz arlo egin beharra geneukala: justizia administrazioan, udal administrazioan, osasungintzan, irakaskuntzan eta hedabideetan. Arlo hauek euskararen berreskurapenerako estrategikoak dira, baina horrek ez du esan nahi beste gai batzuk jorratzen ez ditugunik.

ETA ANTOLAKUNTZARI DAGOKIONEZ, ZENBAT TALDEK OSATZEN DUTE EHE ?

Partaidetzari dagokionez gorabehera handiak egon dira. EHEN hastapenetan zegoen militantziaren jarraikortasuna

SARLU
Zure arropa eta oinetakoak
www.sarludenda.com
Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRAL
TABERNA
Eguzkitan, astalarenetik osatuta
JANTOKI BEGETARIANO
SAN KRISTEKO XABIERREAREN KANTUA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL- 945 27 65 33

TXUKUNA
EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...
Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegaia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ



"Bidea ofizialtasuna da" lelopean, auto-karabana Euskal Herriko puntu ezberdinetatik Altsasura. Ondoren jende katea egin zen herriko plazara

80. hamarkadan EHEk udalerrri euskaldunen aldeko lan ildoazabaldu zuen, gerora UEMAren sorrera ekarriko zuena



galdu da, hau da, gazetetasunaren grinari erantzunez edo sartzen dira taldean asko, eta ondoren, urte batzuk pasa eta gero uzten dute. Hau ez da izugarritzko abiadurarekin gertatzen, baina ez da hastapeneko emankortasun hori ere. Dena den, gaur egungo neurgailu bat izan daiteke herrietan inoiz baino talde gehiago ditugula, 65 bat talde inguru, alegia. **EKINTZARIK EKINTZA, ABENDUAREN 18AN ANAITASUNEAN EGINDAKO EKITALDIAREKIN ITXI ZENUTEN URTEA. NOLAKO EMANALDIA IZAN ZEN?**

Urtero egin ohi ditugun ekintzak (bide-seinale ezabaketa eguna, hitzaldiak, Iruñeko eta Baionako manifestazioak...)

25. urteurrenaren aterkipean kokatu genituen, eta horietaz gain ekitaldi berezia ere egin genuen. Ekitaldi nagusi hau prestatzen ari ginela, nola egituratzearen inguruko zalantzak sortu ziren; 20. urteurrenak jaialdi itxura hartu zuen eta hau egiteko, aldiz, musika baztertu gabe bestelako ekitaldia antolatu nahi genuelako. Hortaz, 25 urte hauetako ibilbidea izan den horretan oinarritu ginen, gertakizun nagusienak gogoratu eta horiei EHEk emandako erantzunak. Modu berean, Euskal Herriaren izaera euskara dela gogoratu genuen eta bide horretan lehen aipaturiko irizpideekin lanean jarraitzeko asmoa berretsi genuen.

ETA 2005ERAKO ZEIN DA EHEK PRESTATU DUEN EGITARAUUA?

Urtero iraila-urria aldera hausnarketa prozesua egiten dugu, egoeraren azterketa bat, ikusi nola pasa dugun ikasturtea, euskarari eragiten dioten faktoreen azterketa, estatuen jarrera, lortu ditugun aurrerapausoak..., eta ostean ikasturteko helburuak markatzen ditugu, ofizialtasuna tarteko helburu gisa. Batetik, lehen aipatu bezala, herri bakoitzak dinamika bat izango du eta bestetik, nazio mailan

zeintzuk ekimen egingo ditugun ere markatzen dugu.

Gauzak horrela, epe motzean, otsail-martxora aldera, nazio mailan sinaduren bilketa egingo dugu osasun etxeetan entregatzeko. Justizian jarraituko dugu epaiketak euskaraz egin daitezen aldarrikatzen, irakaskuntzan "Eskolak euskaldundu" ekimena dago antolatuta beste hainbeste eragileekin batera, eta komunikabideen inguruan erdaraz direnak salatzen jarraituko dugu. Zentzu honetan hainbat mobilizazio prestatuta daude.

AMAITZEKO, NOLA DAKUSA EHEK EUSKARAREN EGOERA ETORKIZUNEAN?

Egoera zuri-beltzekoa ikusten dugu. Alde positiboa euskarazko atzerako joera hori geratuta dagoela da, eta garai batean desagertzeko zorian zegoena euskalgintzari eta euskaldunon lanari esker aurrera atera dugula.

Baina hala eta guztiz ere, horren alde txarra da euskararen sustapena ziurtatuko duen minimo horretara heltzea ez dugula lortu. Hortaz, gauza asko egin ditugu baina lanean jarraitu behar dugu oraindik, eta ondorioz, memento gazi-goza dela esan daiteke.

Gasteiz eta Arabako EHE

Urko Aierbe 30 urteko donostiarra da Arabako EHEren arduraduna. Gasteizen EHE taldea 12 lagunez osatuta dago. "Horiek finkoak dira baina beste hainbeste daude laguntzaile direnak -dio Urkok-. Araba mailan, Legution, Agurainen, Zigoitin eta Laudion ere badaude taldeak".

Urkoren esanetan, Gasteizen euskarak egun duen egoeraren azterketari dagokionez, "Euskal Herrian orokorrean dagoenarekin loturik doa. Hala ere, hemen euskarak eman dituen aurrerapausoak nabarmenak dira. Gainontzeko leketan baino pauso handiagoak eman dira Gasteizen, duela 25 urte euskararik ez baitzen hemen entzuten. Baina Gasteiz euskaldun bat ezagutzeko oraindik denbora falta da eta lanean jarraitu behar dugu".

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztozile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
ortzean) Tfnoa: 945 25 03 52

GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA
PUBLIZITATEA
945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz
 Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

GASTEIZKO BATZOKIAK

EAJ PNV	ABENDAÑO Enrique Eguren, 5-7 Tfnoa. 945242852 945220715 (jantokia)	ERDIALDEA Santa Barbara pza. z/g Tfnoa. 945203312 945280997 (jantokia)	LAKUA Biltzar Nagusien k, 54 Tfnoa. 945175651 945176406 (jantokia)	ZARAMAGA Gasteiz kalea, 18 Tfnoa. 945288068
----------------	--	--	--	--

Taldeentzako bazkariak eta afariak prestatzen dira, aurretik erreserba eginez

Udaberria
 euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza


Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
 Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK
 San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
 Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
 harategia eta urdaitegia
 Gasteizko
 haragitegirik zaharrena
Errege alea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
 Artisau
 Okindegia eta
 Goxotegia
 Jesús Guridi kalea, 2
 Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
 01005 GASTEIZ

Iratiren
BONARDI "AIRE"
 armazoiak



orain
60€ -tan
 bakarrik



ZERBITZU
 OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
 DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza
 Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eskaintza horiek 05/1/7tik 05/2/28ra arte izango dira indarrean



KIDS

APAINDURA
 Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

zentral nuklearra

Garroña

arriskua etxe ondoan

edurne begiristain

argazkiak: eguzki & edorta sanz

GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRA BURGOSKO TOBALINA HARANEAN KOKATUA DAGO, SOBRONEKO URTEGIAREN GAINEKO ZONALDEAN, EBRO IBAIAREN URBAZTERREAN. GASTEIZTIK 44 KILOMETRO ESKASERA DAGO. GAROÑAKO ZENTRALA 1971KO MARTXOAREN 2AN LOTU ZITZAION ARGINDARRA EMATEKO SAREARI. BERAZ, AURTEN 34 URTE BETEKO DITU. ESPAINIAN DAGOEN ZENTRAL NUKLEAR ZAHARRENA DA. GAROÑAKO ZENTRALA NUCLENORREK KUDEATZEN DU: ERDIA IBERDROLARENA DA ETA BESTE ERDIA, BERRIZ, ENDESARENA. GAROÑAREN EGUNGO EGOERA ETA ARRISKUEZ GEHIAGO JAKIN NAHI IZAN DUGU, ETA HORRETARAKO EGUZKI TALDE EKOLOGISTAK ETA GAROÑARIK GABEKO ARABA PLATAFORMAK EMANDAKO DATUETARA JO DUGU.



Garoñak 2009. urtera arte lanean jarraitzeko baimena dauka, baina ustiatzaileek iragarri dute asmoa dutela 2019ra artekoa ere eskatzeko.

Horiek horrela, talde ekologistek uste dute zentralak 25 urtez irautea pentsatuta izateak arrisku bizia dakarrela. Eguzki talde ekologistak, esaterako, urteak daramatza Garoñako zentralaren itxiera aldarrikatzen. Talde ekologistak maiz salatu du Garoñak 60. hamarkadako teknologia daukala eta ez dela batere fidagarria. Hala, emandako datuen arabera, AEBn debekatutako Mark-1 izeneko oinarritzko euskarria dauka, eta irakite bidezko ur erreaktorea edota zuzenean Ebro ibaitik hartutako uraren hozte sistema erabiltzen du.

Eguzkik aztertutakoaren arabera, 1995etik itxita beharko lukeen zentralako materialen higadurak pitzadurak sortu ditu erreaktorearen barrualdean. Ildo berean, Espainiako Segurtasun Nuklearreko Batzordeak hango parlamentuari 1983an igorritako txostenaren arabera, "fenomeno horrek erreaktorearen ontziaren egituraren sakoneko hondatzea sortzen du". Osasun zerbitzuetako datu estatistikoetan oinarrituta, Garoñatik eta Ebro ibaitik gertu dauden Arabako eskualdeetan minbiziak eragindako heriotz kopurua EAEko batez bestekoa baino handiagoa dela frogatu zuen Eguzki taldeak duela zenbait urte. Hartara, taldeak salatutakoaren arabera, "errentagarritasuna" baino ez da kontuan hartzen zentralarekin, sor ditzakeen arazo larriak ahaztuta.

Eguzkik bezalatsu, zentralaren aurka dauden zenbait talde eta lagun biltzen dituen Garoñarik Gabeko Araba plataformak uste du zentralari beste luzapen bat ematea "lotsagarria" izango litzatekeela, zentralaren zati garrantzitsu asko eta asko nola dauden ikusita: adibidez, ontzi nagusiaren 79 hodietako gehienak oso kalteturik daude 1982. urtetik. Hartara, Espainiako Industria Ministerioak Garoña "luze baino lehen itxi behako luke".


Larrialdi Plana, eskasa

Zentral nuklearrek Kanpo Larrialdi Plan bat izan behar dute derrigorrez. Garoñaren kasuan, Planak PENBU du izena (Plan de Emergencia Nuclear de Burgos). Garoñako


zentralaren gaineko larrialdi planak bi eratako ondorioak besterik ez ditu aintzat hartzen: 10 kilometrora dauden udalerrienak (Lantaron, Trebiñoko konderrria eta Gaubea) eta 30 kilometrora direnenak (Amurrio, Armiñon, Beranturi, Kuartango, Iruña Oka, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gesaltza, Urkabustaiz, Zanbrana eta Bizkaiko Urduña). Hortaz, Gasteiz, Bilbo eta antzeko toki populatuak ez dira plangintzen barruan sartzen, hurrenez hurren, zentraletik 44 kilometrora eta 58ra daudelako.

Hori dela eta, Garoñarik Gabeko Araba taldeak salatu egin du PENBU delakoa eskasa dela, zentraletik gertuko herrietarako baizik ez eta osatu gabea delako. Egitasmo hori kalteak saihesteko bainoago protokoloa betetzeko dagoela uste dute.

Hori agerian geratu zen, esaterako, iazko urriaren 29an Arabako zenbait heritan egindako istripu simulakroarekin. Garoñako zentral nuklearraren istripu simulakroak ganorarik ez zuela izan salatu zuten. Plataformaren aburuz, saioa hutsez beterik egon zen, adibidez, larrialdi mahairik ez zen eratu udalerrri batzuetan. Nolanahi ere, eskerrak ez zen benetan istripurik jazo, eguraldi baldintzarik



SANTA M
DE
OÑA OÑA



ZENBAIT DATU

Irabaziak

20 milioi euroko irabaziak izan zituen Garoñako zentral nuklearrak.

Kalteak

Eguzkiren arabera, kutsatutako 400.000 litro ur isuri dituzte zentraletik, Arabako, Errioxako eta Nafarroako Erribera Garaiko eremu zabalak kaltetuz. Gas isurketei dagokienez, 600.000tatik 10.000 kuriotara gutxitu dira, maiz muga hori gainditzen bada ere.

okerrenak izan zire-lako. Gauzak hala, istripurik gertatu izan balitz, hodei erradioaktiboa 21 minuturen buruan helduko zatekeen Gasteizera, eta 24ren buruan Bilbora.

Ildo horretatik, Garoñarik Gabeko Arabak zentral nuklearrek gertuko herritarrengan sortzen dituzten kalteak larritzekoak direla gogorazi du maiz: hala, 1999 eta 2001ean egindako ikerlan batek erakutsi du Garoña inguruko biztanleen minbizi kopurua eta 0-24 urte bitartekoen heriotza-tasa handiagoak direla. Hori horrela, alderdi politikoei eskaera egin die plataformak, Osakidetzari zonako ikerlan epidemologikoa egin dezala eska diezaioten.

Emandako hitza beteko al du PSOEk?

Garoña behin betikoz ixteko eskaera gero eta gehiago entzuten ari da azken aldiari. Haatik, erabaki hori hartzeko eskumena duen alderdiak, PSOEk, ez

du oraindik urratsik eman. PSOEk hauteskundeak irabazi zituenetik, agintari sozialistek Garoñako eta gainerako zentral nuklearrak ixtearen inguruan hartu duten jarrera honakoa da: mutu daude.

Nolanahi ere, gobernu sozialistak konpromisoa hartu zuen Espainiako zentral nuklearrak ixteko, eta Jose Luis Rodriguez Zapatero presidenteak berak hitz eman zuen kargua hartzeko saioan bertan. Alabaina, ekologisten arabera, PSOEk atzera egin du 2004ko hauteskundeetako programan, orain dela lau urte Joaquin Almunia hautagaiak aurkeztu zuenarekin alderatuta. 2000. urtean Garoñako eta Zoritako zentralen itxiera aipatu zuen hitzez hitz, eta aurtengo programan, ordea, ez zettorren Garoñari

buruzko aipu zuzenik.

Eguzkiren arabera, PSOEk esan behar du itxiera nola egingo duen, eta ildo horretan, bi kontu tentuz aztertu. Alde batetik, zentrala dagoen eskualdea ekonomia eta gizarte ikuspegitik errekupeartzeko plana egin beharra dago. Bigarrena, itxieraren kudeaketa egokia izango litzateke, zentralak deuseztatzea kostu ekonomiko handiko operazioa izaten baita. Baina horren gainetik, segurtasuna da gehien axola dena, hots, hondakin nuklearrekin zerikusia duen guztia. Nolanahi ere, zentralako arduradunek oraindik ez dute inolako urratsik eman Garoña ixteko, eta itxura guztien arabera, ez dute luzaroan emanen.



arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com



Arabako txakolina

ANTZINAKO TRADIZIOARI EUTSIZ, ARABAKO AIARAKO ESQUALDEAK TXAKOLINA EKOIZTEKO OHITURA BERRARTU ZUEN 1987. URTEAN, ARABAKO TXAKOLINA ELKARTEA ERATUZ. GEROZTIK, MAHASTIEN ZABALERA ETA ARDO TXURIAREN EKOIZPENA PIXKANAKA HANDITZEA LORTU DUTE. IZAN ERE, 2003. URTEAN ARABAKO TXAKOLINA JATORRIZKO IZENA ESKURATU ZUTEN, KALITATEZKO PRODUKTUAREN IZENDAPENA LORTUZ. EGUN, ESTATU ESPAINOLEKO JATORRIZKO IZENIK TXIKIENA IZAN ARREN, ARRAKASTATSU SUERTATZEN ARI DA, EZ BAKARRIK GURE PROBINTZIAN, BAITA ATZERRIAN ERE.

Ardoa ekoiztea soilik Arabako hegoaldeko zeregina delako uste txarra alboratu behar dugu. Izan ere, Aiarako eskualdean aipatutako edaria IX. mendean jada ekoizten zela jakin dugu. Are gehiago, XVIII eta XIX. mendeetan 500 hektarea baino gehiagoko landaketak zeuden Arabako iparraldean. Hala eta guztiz ere, XX. mendean, industralizazioa eta bestelako nekazaritza-jardueren garapena zirela eta, mahastiak desagertuz joan ziren, bakarrik 4 hektareatarra mugatuz.

Gauzak horrela, 1987. urtean industria gizon talde batek galtzear zegoen merkatal jarduera garatzea erabaki zuen, Arabako Txakolina Elkartearen eratu. Helburuen artean, Arabako Txakolinaren Jatorrizko Izena lortzea eta landaketa azalera handitzea zeuden. "Lehenengo xedea, 2002 urteko abuztuan lortu genuen eta 2003. urtean, berriz, gizartean aurkeztu zen", azaldu du Joxean Merino Arabako Txakolina Elkarteko idazkari eta gerenteak. Bestetik, sorreratik ekoizpena gero eta handiagoa izan da; "1998 urtean 50.000 botila inguru ekoiztu ziren, 2004 urtean, berriz, 250.000 botila baino gehiago merkaturatzea lortu dugu eta datorren urtean, jasotako mahatsak kontuan hartuz, 315.000 botila produzitzea aurreikusten dugu", diosku Joxeanek.

Halarik ere, Arabako ekoizpena bestelako txakolinaren Jatorrizko Izenekin alderatuz gero, oso murrizta da. Getarian, esaterako, milioi bat eta 700 botila merkaturatzen dira eta Bizkaian, milioi t'erdia. "Nahiko txikiak gara, hala ere, gure hazkuntza neurtua izaten ari da, merkatuaren eskaeraren arabera, hain zuzen", adierazi du Joxeanek. Eta ez hori bakarrik; "ardoaren mundua korapilatsua da oso. Baimena asko eskuratu behar dira hektarea gehiago lantzeko, beraz, zentzu horretan, hazkuntza ez da hain erraza", gaineratu du.

Mementoz, Amurrio, Audio, Artziniega, Okondo eta Aiara dira Jatorrizko Izenaren barnean dauden herriak, zehatz-mehatz, Saratxoko zonaldea; egun, mahastien %80 gutxi

gorabehera bertan kokatzen dira, Artomaña herrian, hain zuzen.


Bestalde, hiru dira Jatorrizko Izenaren baitan lan egiten duten enpresak. Batetik, Arabako Txakolina S.L. dugu, Xarmant izeneko txakolina egiten duena eta ekoizpenaren %90ez arduratzen dena. Bestetik, Amurrioren kokatzen den El Txakoli izeneko landa turismoak artisau-eran Mahatxuri deitutako ardoa ekoizten du. Hau ekoizpen guztiaren %1ez arduratzen da. Azkenik, aurten agertu berri den Beldio Txakolina S.L. bodega aurki dezakegu, Beldui txakolinaren jabe.

Mikroklima egokia

Joxean Merinoren esanetan, "Txakolina urteko ardo gazte eta zuria dugu, fruta gustukoa eta zeharo karbonikoa, hotz edatea gomendatzen dena, alegia". Azaldutakoaren arabera, Arabako Txakolinaren %80 behintzat Hondarribi Zuri deitutako mahatsarekin egin ohi da. Honi, Gros Manseng, Petit Corbu eta Petit Manseng mahatsak gaineratzen zaizkio, ekoizlearen arabera beti.

Uztei dagokienez, ardo guztietan legez, iraila eta urria bitartean jasotzen dira mahatsak. "Esan beharra dago, guk makina moderno baten bidez egiten dugula bilketa mekanikoa. Azkarragoa da eta mahatsak baldintza egokietan heltzen dira bodegara", azaldu du.

Izan ere, mahats egokia ezezik, klima aproposa izatea funtsezkoa da kalitatezko txakolina lortzeko. "Aiara eskualdeko mikroklima oso aproposa da ardo mota hau ekoizteko. Ura eta eguzkia dugu, funtzesko elementuak, alegia", adierazi du Joxeanek. Alabaina, udaberriko izozteek arazo larria dakartela aitortu du; "Neguko izozteak onuragarriak diren bitartean, udaberrikoek landareak hondatzen dituzte. Hori ekiditze aldera izozteen aurkako



EL BAR Kutxi

eguneko menua

DIBUtec

Paper Berzeziak
Arte Ederretarako Materiala
Tink, jet original eta birziklatuak
Bullego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estropaketak

Bazkarprint

Imprenta / Inprimategia
Edozein inprimokero mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatuak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 fnoa. 945 25 02 39

jatorrizko izena

saioa fz. de arangiz
argazkiak: edorta sanz



Joxean Merino, Arabako Txakolina elkarteko idazkari eta gerentea

ureztatzeak egiten dira eta honek erantzun onak ematen ditu".

Arabako Txakolinaren harrera

90. hamarkadaren amaieran merkaturatu zenetik, bi etapa ezberdin nabarmendu ditu Joxeanek. Hasiera batean, ardoa Jatorrizko Izena barik agertu zenean, jendeak produktu arabarra zelako erosten zuen ardoa, batez ere. Izan ere, aipatutako kategoria eskuratu zuenean, kalitatezko produktu bilakatu zen eta harrera ona izan zuela azaldu digu Joxeanek; "2003. urteaz geroztik, salmenten hazkundea izugarria izan da. Orokorrean esanda, harrera oso ona izan da eta pozik gaude".

Banaketa begira, Gasteiz, Amurrio eta Audio hartu dituzte abiapuntutzat, hala eta guztiz ere, txakolin arabarraren erdia baino gehiago probintziatik at saltzen da, Katalunia, Levante, Bilbo eta Bizkaia merkatu garrantzitsuak bilakatuz. Horrez gain, AEBetara eta Mexikora ere zabaldu da ardo txuria eta jada ekoizpenaren %1 saltzen da Atlantikoaren bestaldean.

NON AURKITU ARABAKO TXAKOLINA?

- Arabako ardotegi gehienetan

- Hipermerkatuetan

- Kalitatezko elikadura denda
espezializatuetan

- Tabernetan

- Urtean zehar Araban
antolatzen diren hainbat jaitan:

- Txakolin Eguna; Isidro Deuna osteko lehenengo igandean, maiatzean. Bertan urteko txakolinaren aurkezpena egiten da.

- Txakoli a Tope; Gasteizen, ekainean eta uztailean. Prezio txiki baten truke, txakolina eta pintxoak dastatzeko aukera.

- Ardoaraba; Gasteizen, abenduko zubian. Ardo arabarren dastaketa egiten da bertan.

Argazki - Estudioa
Erramun
Heredia Fourrier, 23 Inoa: 15 71 02 01006
Askatasun kalea, 5 Inoa: 24 19 91 01004

Dalvez
argitarazteak
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

saioa fz de arangiz

argazkiak: edorta sanz / azul multimedia

GASTEIZKO AZUL MULTIMEDIA SOFTWARE-ETXEAK BERE LANA ETA ESFORTZUAREN DONARIA JASO DU AURTEN. ZEHAZKI, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAK EUSKARAZKO IKASMATERIAL ONENAK ETA BERRITZAILEENAK SARITZEKO BANATZEN DITUEN ISAAC LOPEZ-MENDIZABAL (TESTULIBURUAK) ETA MIGUEL ALTZO (MULTIMEDIA) SARIEN BAITAN, MULTIMEDIA-SOFTWAREAN AIPAMEN BEREZIA ESKURATU BAITU ENPRESAREN LURRAZPIKO KONDAIRA CD-ROMAK. ABENTURA ETA MISTERIOA NAHASTUZ, PRODUKTU HONEK MODU JOSTAGARRIAN ARKEOLOGIA HURBILDU ETA EZAGUTZERA EMATEN DIE BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEI. AUKERA ONA, BERAZ, ARKEOLOGIAREN MUNDUAN MURGILTZEKO!



'Lurrazpiko


ARKEOLOGIAREN

A bentura Arkeologia museo baten inaugurazioaren bezperan hasten da, museoko zuzendari Isabela arkeologoa bertan dagoen anabasa txukuntzen saiatzen denean. Areto guztiak bisitatu ditu, bakoitzean abentura eta misterio ezberdinak topatuz. Honela, mota askotako buztin-ontziak egiteko zeramika-tailerra, historiaren garai ezberdinak eta bertako biztanleak ezagutzeko makina, arkeologi aztarnategi bat edo antzinako simulazioak aurki ditzake jokalaria bere bidean. Dendena, misterioari lotuta, euskara hutsean eta kutsu hezigarria mantenduz. Programaren

edukien arduraduna arkeologoa eta arte-historialaria izaki, Arkeologiaren kurrikulu-edukiak erabat errespetatu dira, ikasleentzat ikasmaterial dibertigarria bilakatuz.

Horrez gain, Arabako produktua dela ikusiko dugu berehala, Azul Multimedia enpresak, bere lan guztietan egin ohi duen moduan, arkitektura arabarrari keinu egiten dio eta probintzian aurki ditzakegun eraikinen antza duten marrazkiak topa ditzakegu bidean.

Iñigo Sarasolak, marrazkigilea eta Geu aldizkariko komikigileak, besteak beste, Azul Multimediaren produktu honen





Iñigo Sarasola, CD-ROMaren egileetako bat

kondaira' CD-ROM-a, MIGUEL ALTZO SARIAREN IRABAZLE MUNDUA AGERIAN

ekoizpenean parte hartu du, ez bakarrik 2D eta 3Dn egindako irudiak marraztuz, baita gaiaren inguruko ekarpenak egiten ere. Bere esanetan, "abentura grafiko hau didaktikoa eta oso baliogarria da gazteei arkeologia benetan zer den erakusteko, metodologia klasikoa agerira ateratzen delako".

Sariaren garrantzia

Azul Multimedia enpresak urtebete erabili du Lurrazpiko Kondaira errealitate bilakatzeko eta talde-lana funtsezkoa izan dela azaldu digu Iñigok. Izan ere,

esfortzu eta ahalegin guztiak merezi izan du, software arruntik onena saritzen duen Miguel Altzo saria eskuratu dutelako. Gainera, poza bikoitza izan da. Iñigorentzat "oso sari berezia" izan da, ez bakarrik bere lanaren aintzatespenagatik, baita sariaren esanahi sinbolikoagatik ere. "Saria Donostian jasotzean, Txiki Zabaloren marrazki eta ilustrazioak jarrita ikusi nituen bertan eta sarian Xabiertxoren ilustrazioa agertzen zela konturatu nintzen. Txiki Zabaloren lanak asko markatu nau nire ibilbidean eta oso dut gustuko, beraz, oso polita izan zen niretzat", adierazi du Iñigok.

Azul Multimediarentzat ere inportantea izan da. Ana Gomez Frutos enpresako proiektuen zuzendariak esan bezala, "oso pozik gaude sariarekin, beste enpresa batek enkarguz bidalitako lan bat izan beharrean, gure ekimenez sortutako lana izan delako. Interes pertsonal bat geneukan, batetik, hezkuntza mailan eta bestetik, arkeologiaren alorrean, eta hori garatzea pentsatu genuen.

Donariarekin lanaren kalitatea saritu dute eta programa horren erantzukizun guztia gurea da". Modu honetan, kalitatezko produktuak egitea posible dela agerian utzi dutela diosku Anak.

Euskara, ezinbesteko elementua

Gainera, Lurrazpiko Kondaira goitik behera euskaraz ekoiztutako programa dugu, gidoia barne, eta behintzat bere bizitzako lehenengo urtean soilik euskaraz ikusteko aukera izango dugu. "Hauxe da gure enpresaren konpromisoa, modu honetan, hasiera batean programa bakarrik euskaraz ikusiko dela ziurtatuko dugu. Ondoren, bestelako itzulpenak egingo ditugu", azaldu digu Anak.

Etorkizunari begira, software-etxeak marrazki klasikoak, 3 dimentsiokoak eta espazio birtualak nahasteari ekingo dio bere hurrengo lanean. Bitartean, laster merkaturatuko den Lurrazpiko Kondaira abenturaren zain egongo gara.



JESUS OBRERO ikastetxearen Jon Aizpuru VI. omenaldia

Bertsoak eta kirola, euskararen alde

EUSKARA BULTZATU NAHIAN, JESUS OBRERO IKASTETXEAK JON AIZPURU VI. OMENALDIA ANTOLATU DU AURTEN ERE. HORRELA, OTSAILAREN BIGARREN ASTEBURUAN EUSKARA GASTEIZKO KALEETAN BARRENA ZABALTZEKO AHALEGINA EGINGO DU, BERTSOAK, KANTUAK ETA TXIRRINDULARITZA DIRELA MEDIO. BERTAN, JESUS OBREROKO IKASLEEK EZEZIK, BESTELAKO IKASTETXEETAKO GAZTEEK ERE PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DUTE.

saioa fz de arangiz

argazkiak: jesus obrero

Jon Aizpuru omenaldia orain dela 6 urte jaio zen Jesus Obrero ikastetxean. Omenaldiaren egungo arduradun Idoia Perez de Nancles irakasleak azaldu bezala, "helburua euskara Gasteizko kaleetara zabaltzea izan da beti, ikastetxeak euskararen aldeko ekarpena eginez". Horretarako, bi dira urteotan antolatu ekintzak: batetik, bertso eta kantu txapelketa eta bestetik, euskararen aldeko txirrindularitza martxa.

Beti bezala, aipatu ekitaldietan Jesus Obreroko ikasleek parte hartuko dute, halarik ere, Araba osoko ikastetxeei ere hauetan egoteko gonbidapena luzatu zaie.

Horrela, otsailaren 12an Dendaraba aretoan egingo den "Bertso eta Kantu txapelketa" ikastetxe desberdinetako gazteak abesten eta bertsoak botatzen ikusiko ditugu. Guztira, 8 bertsolari inguru izango dira finalean parte hartuko dutenak. "Izena eman duten bertsolarien artean egin dugu aukeraketa, bertso onenak finalerako aukeratuz. Lan honetan Bertso Eskolaren, eta bereziki Oihane Perearen laguntza jaso dugu", diosku Idoiak. Horrez gain, "Kantu txapelketa" ere egongo da, non nahi duenak prestatu abestia abesteko aukera izango duen. Hitzorduak arratsaldeko 19:30ean izango du hasiera.

Otsailaren 13an, berriz, "Euskararen aldeko txirringa martxa" aterako da Jesus Obrero ikastetxeko patioetik goizeko 12:30ean. Ibilbidean 600 txirrindulari inguruk parte hartzea aurreikusten dute eta ohi denez, Euskaltel taldeko txirrindulariak hurbilduko dira, ziurrenik taldeko kide gazteenak. Denek batera, hiriko kaleak zeharkatuko dituzte euskararen aldeko mezua zabalduz. Edonork parte har dezake, beraz anima zaitetz!



NOR DA JON AIZPURU?

Orain dela 10 urte inguru hil zen Jon Aizpuru. Jesus Obrero ikastetxean jardun zuen irakasle jesuita dugu. Euskaltzalea zen oso eta lan handia egin zuen euskararen alde, ikastetxean zein gizartean, oro har. Hori dela bide, eta bere lankideentzat pertsona berezia izateagatik, orain dela 6 urte bere izena daraman omenaldia jarri zuten abian, hain zuzen, euskararen erabilpena bultzatzen duen ekitaldia.

IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA

Sagañdotegia

TXOTX!

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZE HAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

OTSAILA. AGENDA

GEU

GASTEZKO IRAKURLE KLUBA

otsailak 24, osteguna

J.M. Coetzee, Lotsaizuna, Elkar 2004

Hikaatenoan (Pintore kalea, 13), 20:00etan

Dinamizatzailea: Iban Zaldúa idazlea

Hurrengo saioan eztabaidagai izango den liburua:

Pello Lizarralde, Sargori, Pamiela 1994

Martxoak 17, osteguna

GEUREKIN MENDIRA

otsailaren 20an

FLOR, UMIÓN (1434 m)

(*arratsaldean itzultzekoa)

Arduraduna: Kike-945140158

Irteera: goizeko 9:00etan Lovainan

GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN VI. IRTEERA

otsailak 27

UDALAITZ

Irteera: goizeko 8:30ean

Lovaina plazan. KOTXEZ

Informazioa: 945222153 (GEU elkarte - Josune)

KULTUR ERROTA

otsailak 8

MUNDUA ZAZPI KOLORETAN. Diaporama.

JON ARRETXE.

20.30ean, PARRAL tabernan

ARABAKO BERTSO TXAPELKETA

otsailak 19, 26: kanporaketak

martxoak 12, 19: finalerdiak

apirilak 8: finala

KORRIKA KULTURALA

ikus. 5. orrialdea

JON AIZPURUA VI OMENALDIA

otsailak 12-13

12an: 19:30ean Dendaraba aretoan "Bertso eta Kantu txapelketa"

13an: 12:30ean Ikastetxeko patiotik "Euskararen aldeko Txirringa martxa"

Antolatzailea: Jesus Obrero Ikastetxea

ANTZERKIA-SAMBHU TEATRO

"Negarretan ibaia sortu zuen gizona"

otsailak 25

Haurrentzako ikustaldia:

Ur istorio bat. Magia eta antzerkia lotzen

duen ipuin bat. Dantza, musika,

txotxongiloak, aldaketa miresgarriak...

Zigoitiko zentro soziokulturalean

18:00etan

GORA TABERNA

otsailak 13

Kontzertua. The Heckler taldea.

20:00etan

otsailak 24

Kontzertua. Zein? taldea (photograma Cd berriaren aurkezpena).

20:00etan

otsailak 25

Edu Zelaieta & Mugaldekoak (poesia eta musika).

20:30ean

IKA GASTEIZ. 15 URTE.

1989-2004 ERAKUSKETA

otsailaren 21era arte

Hegoalde Gizarte etxean

ZINEA EUSKARAZ

Hileko lehen larunbatean,

12:00etan

Antolatzailea: Euskharan elkarte

(Amaia zentroan-Aranbizkarra)

HIKA TEATROA: "GROAU"

otsailak 6

Haurrentzako antzerkia

Harresi aretoa. Agurain

17:00 etan

Sarrera: 3 euro

GAUEKOAK

www.gaukoak.com / gaukoak@gaukoak.com

/ KULTURAMA elkarte: 945-141060

TXAPELDUNEN BERTSO JAIALDIA

otsailak 11, ostirala

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Asier Otamendi, Igor Elortza, Xabier Silveira, Amets Arzallus.

Aurkezle: Naroa Saset

22:30ean, ALDABE GIZARTE ETXEAN.

Sarrera: 2 euro

Antolatzaileak: Gaukoak eta Arabako Bertsozale

Elkarte

Laguntzaileak: Korrika Kulturala

"AFRIKA, BESTELAKO BEGIRADA ETA AHOTSAK JARDUNALDIAK"

(ekaina bitartera)

otsailean

Hitzaldia: Gatazkak Afrikan

Afrikan etengabe dauden gatazka armatuen inguruko hausnarketa.

Tailerra: Hegoafrika, Sahara azpiko Afrikaren motorra?

Hegoafrikaren egoera eta ingurukoengan duen eragina.

Hizlaria: Angel Alfaro. Filosofia eta letretan lizentziatua.

Afrikan jakituna. BBC irratia aholkukaria Afrikako gaietan.

Hikaateno-n (Pintore kalea 13-behekoa. 945288192

gasteiz@hikaateneo.org)

Gasteiz eta Bilbo trenbidez lotu:

Azken urteotan "Euskal Y" proiektu polemikoaz asko eta asko hitz egiten bada ere, Euskal Herriko trenbide sarearen gaia kontu zaharra dugu, eta, gaur egungo moduan, iraganean ere oso gai eztabaidatua izan zen. Hain zuzen ere, gure lurralderako lehenengo trenbide-proiektua aurkeztu zenetik (XIX. mendearen erdialdean) haserrea, kezka eta kexak sortu ziren.

Estatu espainiarreko lehenengo trenbidea, Bartzelonatik Mataró-ra zihoana, 1848. urtean zabaldu zen; 10 urte lehenago, asmo handiko proiektu bat aurkeztu zen: "Ferrocaril del Norte" deiturikoa. Proiektu horrek Madril eta Irun-Frantzia lotzen zituen eta, ibilbide luze horretan, Gasteiz zeharkatzen zuen, euskal ekonomiaren hiriburua zen Bilbo estatuaren komunikabide nagusi horretatik baztertuz.

Bilbo aldeko sustapen industrial bultzatzen zuen burgesia indartsuaren erantzuna berehalakoa izan zen. Zehazki, Miranda de Ebron tren-lotune bat eraikiz, Madril-Irun ibilbidearekin lotura proposatu zuen: Miranda-Bilbo trenbide berria. 1857an proiektua aurkeztu, 1858an obrak hasi eta 1863an inauguratu zen "Bilbo-Miranda-Tutera" trenbidea. Modu horretan, Gasteiz tren lotune nagusien artean bazterturik gelditu zen, hau da, Miranda de Ebro eta Altsasu artean.

Gasteiztarren haserrea

Bilbo-Tutera trenbide proiektuak Gasteizko burgesiaren haserrea piztu zuen, Gasteizek Penintsularen iparraldeko komunikabide lotune nagusien arteko bat izateko aukera galtzen baitzuen. Hain justu, 1857az geroztik Araban hainbat ahots altxatu ziren proiektu horren aurka. Urte horretan Ramon Ortiz de Zaretek zera idatzi zuen:

"Exhortamos a los bilbainos, que son los que mayor participación han tomado en este negocio, y que tan acreedores se han hecho por su actividad y desprendimiento patriótico, a la consideración pública; que no se dejen arrastrar por arranques impetuosos e irreflexivos, que mediten con calma y ánimo sereno, las ventajas de varias direcciones del ferro-carril; pues confiamos en que se convencerán de que la más útil y conveniente a Bilbao, a las tres provincias hermanas y a la nación entera, es la línea que toque en Vitoria". ("Ferro-carril de Bilbao a Tudela por Vitoria o Miranda de Ebro". R. Ortiz de Zarate, 1857).

Urte berean, Arabako Foru Aldundiak hainbat kexa luzatu zizkion Isabel II. Espainiako Erreginari, Bilbo-Tutera trenbidea Gasteiztik pasa zedin.

Ildo horretan, Ramon Ortiz de Zaretek berak ibilbide aukera batzuk eman zituen, eta

horien artean, gaur egungo "euskal Y"aren antzeko ideia bat ere bazegoen. Hain zuzen ere, Gasteiztik Durangora zihoan bidea, Arratiako bailara zeharkatuz, eta handik Bilboraino.

Baina, Bilbo-Miranda-Tutera bidea ireki zenetik, beste zenbait alternatiba ere sortu ziren, eta gehienek Urkabustaizko Izarra herriko tren-lotunea aintzakotzat hartzen zuten, herri hau bi hirien arteko erdibidean kokaturik baitzegoen; gainera, bide horretako tren-geltokirik garrantzitsuenetako bat zen.

Gasteiz-Izarra trenbide proiektuak


Ordutik, hamarkada askotan zehar, Arabako lurraldean Izarra eta Gasteiz lotzeko hainbat proiektu egin dira. Hauexek dira nabarmenenak:

- **Juan de Velasco** koronelaren egitasmoa dugu aurrena diseinatu zena, **1862** urtean. Aurreproiektuaren txostenaren izenburuan azaltzen du helburu nagusia: "ramal de ferro-carril de 18 kilómetros de extensión entre Crispijana e Izarra, para acortar en 47 km la distancia de Bilbao a Vitoria, Guipúzcoa, Navarra y Francia". Miranda-Gasteiz bidean, Krispijana inguruan, tren-lotune bat proposatzen zen; handik Otorra (Hueto), Arrato Mendizerra zeharkatu (Landaderra izeneko tokian tunel bat eraikiz), Zuiako



Ezkerraldeko irudian 1862ko trazadura

Behaldean: Proiektuen trazadura



atzoko eta gaurko gogoia

(Gasteiz-Izarra bidearen aukera)


bailaran sartu (Aperregitik) eta Urkabustaizen sartu Larrazketatik Izarraraino. Proiektu horretan, Krispijanean eta Aperregin tren geltoki bana eraikitzea proposatzen da.

- **1890**ean, **Pedro Huetok** proiektu berria aurkezten du. Kasu honetan, Zigoitirako norabidea kontuan hartuz, ia-ia gaur egungo Gasteiz-Bilbo errepidearen paralelo zihuan trenbide bat diseinatzen du: Gasteiztik abiatu, lurre paretik pasatu eta Zigoitin sartu Apodakatik (tren-geltokia); hemendik Zaitegira eta, Aiurdin gaina zeharkatuz (tunel bat eraikiz, gaur egun ezagutzen duguna garai hartan ez baitzegoen), Zuiako bailaran sartu; Murgian kokatuko zatekeen ibilbideko geltoki nagusia; bertatik trenbideak, Bitoriano eta Giliernatik pasatu ondoren, Urkabustaizerako norabideari jarraituko zitzaiokeen, Godamo mendiaren parean Izarraraino heldu arte.

- **1925**ean, **Joaquin Garcia Garinek** antzeko tren-ibilbide bat planteatzen du. Proiektu berri honek izugarriko xehetasun teknikoak biltzen ditu. Hau da, ordura arte aurkeztutako proiektuetan, ideiak, zirriborroak edo aurreproiektuak besterik ez ziren adierazten. 1925ean, berriz, egundoko lana egiten da: ibilbidearen diseinu zehatza, obretarako materialak, azpiegitura-lanak (tunelak, zubiak, tren-geltokiak, geralekuak, zerbitzu publikoak, etab.), neurriak, azterketa ekonomikoa, etab.

- **1942**ko proiektua ere nahiko osatua izan zen. "**Comisión de Comunicaciones de Vizcaya**" izeneko enpresak diseinatzen du eta, fotomuntaketa batez baliatuz, ibilbidearen xehetasun guztiak adierazten ditu. Proposamen honek, oro har, 1862ko trenbide-trazadura berreskuratzen du: Arrato mendizerrarako norabidea hartuz, Ehari-ko tren-lotunetik abiatu eta, Astegieta, Estarrona eta Uribarri-Ibiña parean pasatu ondoren, Arrato zeharkatzen du (tunel batetik) eta Zuiako bailaran azaltzen da (Aperregiko tren geltokia); hemendik, Baia ibaiaren bideari jarraituz, Abornikanon sartzen da eta Abezian, Gesalza izeneko tokian, bat egiten du Miranda-Bilbo trenbidearekin.

XX. mendearen erdialdean, Arabako sektore ekonomiko nagusiek Izarra eta



Murgiako tren-geltokia; 1925eko proiektua



Izarrako tren-geltokia

Gasteiz trenbidez lotzeko asmoa berreskuratzen dute. 1955ean, "Economía Vascongada" aldizkarian (122. zk.) honako izenburupeko artikulua bat azaltzen da: "*El ferrocarril Vitoria-Izarra, una condición sine qua non del crecimiento y de la industrialización de la Llanada Alavesa*". Hala ere, une horretan, beste aukera batzuk ipintzen dira mahai gainean Bilbo eta Gasteiz lotzeko asmoa burutzeko: Gasteiz-Legutiano-Otxandio-Lemoa-Bilbo, Gasteiz-Ubide-Zeberio-Arriorriaga-Bilbao; edo Gasteiz-Murgia-(Abornikano-Izarra)-Altube-Ugao/Miravalles-Bilbo.

Nolanahi ere (arrazoi ekonomikoak, egoera politikoa, hainbat eratako interesak, etab. tarteko), azken mende eta erdi honetan ideia eta proiektu horiek ez dira praktikan ipini. Are gehiago, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoaren Trenbide-arloko Planak, aipatutako proposamenak bazterten ditu eta, tren-garraioari dagokionez, ahalegin eta baliabide gehienak "euskal Y" an ezartzen ditu.

Dudarik ez, polemikarako proiektua dugu "Y" arena, ohiko interes eta irizpide ekonomikoez gain, ingurumen arloko arazo eta konnotazioak baitaude.

Hain zuzen ere, gaur egun, naturaren ezaugarriak ezagutu eta gozatu nahian (paisaia, landaretza, fauna...), trenari erabilera berri bat ematen ari zaio. Ondorioz, trenaren inguruan, aisialdia eta turismorako zerbitzuak eta ekipamenduak sortzen ari dira: hotel-trenak ditugu, tren turistikoak, ibilbide tematikoak, etab.

Ildo horretan, Arabako Lurraldeko Zati Planaren Aurrerakinak erabilera turistikoak ematea proposatzen du Erribera Goitiko Pobestik Izarraraino doan trenbideari (orain, trenbide horretako Pobes eta Zuhatzu Koartangoko tren-geltokiak itxita daude). Bestalde, natura ezagutarazteko gogo horretan, berriro Gasteiz eta Izarra lotzen dituen bide bat egiteko aukera adierazten du, baina, oraingoan, bizikletentzako bidea izango litzateke.

Naturari lotutako aisialdia eta turismoa bultzatzeko pentsakerarekin dago egina azken proiektu hau, Zigoitia, Zuia eta Urkabustaizko lurraldeetan zehar hedatzen baita Gorbeiko Parke Naturala.

Proposamen eta ideia hauek guztiak, iraganean gertatu zen bezala, paperetan daude. Lurraldeko Zati-Planak, Abiadura Handiko Trena, Lurraldeko Arlo-Planak,.... Denborak esango digu zertan amaituko diren asmo horiek guztiak!

Millan Fdz de Garaialde, eskultorea

Harrizko eskuak

josune velez de mendizabal

MILLAN

FERNANDEZ DE

GARAIALDE NAFARROAN

(FALTZES) JAIO ZEN 1961EAN.

NAFARRA JAIOTZEZ ETA

GASTEIZTARRA IZATEZ, MILLANEK

BIZITZA GEHIENA ARABAKO

HIRIBURUAN EMAN BADU ERE,

BADIRA 10 URTE PERPIGNANERA

BIZITZERA JOAN ZELA. HEMEN

EGIN BEZALA, HAN ERE

ESKULTURAK LANTZEN DITU

ORAINDIK LANEAN JARRAITZEKO


GOGOTSU DIHARDUEN ARTISTA

HONEK.

Artearen munduak liluratu zuen gazte-gazte zenetik eta etxeko bost anaia-arreben artean gazteena izanik, sekulakoak egin behar izan zituen gurasoak Arte eta Lanbide Eskolan sartu nahi zuela konbentzitzeko, eta ez unibertsitatera beraiek nahiago zuten moduan; baita azkenean lortu ere, eztabaida eta errieta ugari tartean egon arren. Egundaino 20 urte eman ditu Millanek gustuko dituen material eta ideiekin lan egiten eta, besteak beste, Bartzelonan, Perpignanen bertan eta Britainian aritu da azken garai hauetan. **NOIZ ETA ZERGATIK HASI ZINEN ARTE ETA LANBIDE ESKOLAN?**

1978. urtean hasi nintzen. Oso garai berezia zen-hura, hamazazpi urte nituen eta Euskal Herria eta Espainiaren historia puri-purian zegoen, trantsizio garaia baitzen. Errealitate bihurtuko genituen ametsetan murgilduta geunden. Buztinezko irudiak egiteak eskultura espezialiterantz bideratu ninduen. Eskolako lehenbiziko urtean harria deskubritu nuen eta hori izango da ordutik egundaino landuko dudan lehenentasuneko materiala, nahiz eta batzuetan egurrezko eta brontzezko lanak ere egiten ditudan. **-ZEIN IZAN DA ORDUTIK ZURE IBILBIDEA?**

Hastapenetan beti existitzen da zalantza. Hasieretan eredu moduan hurbileko artista bat edota bere obraren bitartez miresten



'Zuri begira', marmol arrosa (45x34x...)

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

MIKO

Izozkiak

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

bar . restaurante .
A
albéniz .

Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

biluztutako barrena



'Iskia' -antsia-
marmol arrosa
(105x35x25 cm)

duzun artistaren bat hartzen duzu. Gero lantzen dituzun lehen obrak forma itxiko harrizko blokeak dira. Denboraren poderioz aldiz, bizi izan duzun hori guztia berrikustera behartzen duzu zure burua, dituzun zalantza guztiak biltzen dituzu eta ikusleria partehartzaile zuzena eginik hori dena eskulturari islatzen saiatzen zara. Orain gehiago konpartitzen duzu...

-NOLA DESKRIBATUKO ZENUKE ZURE ESTILOA?

Artista zentzu batean filosofoa ere bada, idealista eta munduarekiko sentimental. Apurka-apurka egiten duzu aurrera, ondoren lurralde kolektiboa bilakatuko den lekua konkistatuz eta okupatzen, edo agian kolektibo bilakatu ez dena, auskalo. Artean gauzak zentzu fisikoenean sortzeko aukera daukazu eta horiek objektuak izateari utzi diezaioke, kontzientziara edo ulmenera eramanez gero. Niretzat oso garrantzitsua da sormenaren mementoa. Nire lana niretzat esperientzia indibiduala da eta nire bizipenetatik sortzen da; nire beldurren, obsesioen, pasioen, emozioen aitortpena da. Hori dena harrian islatzen dut biluztasunez. Hau da, nire errealtatearen garapenak ikusteko aukera.

-ZEINTZUK LAN PROPIO DITUZU GASTEIZEN ERAKUSGAI?

Lan askorekin kolaboratu izan ditut

baina propioak ez dira, hala nola, Katedral Berriaren ateko 14 irudiren gauzatzean, Andre Maria Zuriaren horma-konkaren zaharberitze lanetan, "Los desamparados" elizarako pauso bat egiten... etab. Gasteiz ez diren beste hainbat tokitan, ostera, propioak diren eskulturak daude ikusgai, Arrasaten, Santa Perpetua de Mogodan, Bartzelonan, Britainian edota Nafarroan.

-MAISURIK IZAN DUZUNIK ESAN DAITEKE? ZEINTZUK ESKULTOREKIN LAN EGIN DUZU?

Eskola ikasten ari nintzela, esaterako, "Chaten", Kortazar, San Miguel, Gamarra, eta Egizabal eskultoreen belaunaldiarekin topo egin nuen. Hauek Gasteizen eskultura mailan gauzak mugitzea lortu zuten eta oso ondo gainera, izan ere, irekitako lantegiak. Teknikaren arloari dagokionez, berriz, bi lagunekin lan egiteko zortea izan dut. Bata, Aurelio Rivas, eskultura gelako irakaslea zena eta bestea, J.M "Chaten" lankide eta adiskide.

-ZEIN EGITASMOTAN ARI ZARA EGUN LANEAN?

Gaur egun lanean jarraitzen dut baita ikasten ere, ez dela gutxi... Egunez egun noa. Egin dudana azken erakusketa kolektiboa Perpignan-en izan da, egun bizi naizen hirian. Baina gehien gustatzen zaidana da eguneroko lana eta izarrei begiratzen jarraitzeko astirik izatea.

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ



ERROTA HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Tunisia

edurne begiristain

argazkiak: josune velez de mendizabal

NONDIK NORA:

Gasteiz-Tunisia

HERRIAREN DATUAK:

Tunisiako Errepublikan 9,5 milioi biztanle inguru bizi da. Hiriburua Tunis da. Herrialdeko hiri nagusiak hauetxek dira: Sfax, Ariana, eta Susa. Tunisian bizi diren gehienak (%98,2) arabiarrek dira, %1,2 bereberak eta %1 europarrak. Musulman sunitak dira gehienak.

NOLA JOAN:

Bilbotik hegaldi asko daude astero.

ZENBAT DENBORA:

Astebete.

AURRETIK PRESTATU

BEHARREKOA:

Pasaportea eta bisatu turistikoa eramatea ezinbestekoa da.

MOTXILAN ZER ERAMAN:

Uda partean bazoazte, kontuan hartu bertako klima lehorra eta beroa dela, are eta beroago, hegoaldera jaitsi ahala. Beraz, eguraldi mota horretarako arropa egokia eraman. Gainontzeko urtarotetan eguraldia aldakorra da. Bestetik, badaezpada komeni da sabelekoa ekiditeko pilulak eramatea.

TXANPONA:

Dinar tunisiarra.

HIZKUNTZA:

Hizkuntza ofiziala arabiera da, baina beste zenbait mintzaira ere erabiltzen dira, hala nola, berebera eta frantsesa.

TOKIAREN DESKRIKAPENA:

Tunisia Magrebeko herrialderik moderno-etarikoa da. Kolore eta kontraste anitzetako lurraldea; hiri zaharrak, jai alaitsuak, azoka exotikoak, basamortu erakargarria, historia erakargarria dituen herrialdea. Tunisia Mediterraneoaren bihotzean dago, arabiar munduak, afrikarrak eta Europak bat egiten duten tokian.



PLAN EREDU EGOKIA:

Astebete inguruko txangoa egitea proposatzen dizuegu. Zuen kontura joan zaitezke, baina bidaiak-agentziek herrialdeko tokirik inportanteenak ezagutzeko bidaiak ere eskaintzen dituzte.

1. eguna: Bilbo-Sousse/Monastir/Tunisia/edota Hammamet. Edozein hiritan hotel eskaintza zabala aurkituko duzue. Kostaldeko hiriak izaki, turismoko guneak dira.

2. eguna: Sousse-Kairouan-Tozeur-Nefta.
3. eguna: Touzeur-Nefta-Tozeur-Douz edo Kebili.
4. eguna: Douz edo Kebili-Matmata-Gabes-Sfax.
5. eguna: Sfax-el Djem-Sousse.
6. eguna: Sousse.
7. eguna: Sousse- Sidi Bou Said-Sousse.
8. eguna: Sousse-Bilbo.

AHOLKUAK- JAKIN

BEHARREKOA:

-Erosketak:

Artisautza erosteko herrialde egokia da Tunisia: artilezko alfonbrak ohikoak dira (Kairouan-en saltzen dituztenak oso famatuak dira), mantak, *djebbask*, txilabak, blusak, zilarra, txorientzako kaiolak (Sidi Bou Saiden), bitxiak, keramika (Nabelen, batez ere).

-Tratuan ibiltzea oso ohikoa da erosketak egiteko.

-Garraioa: 2000 km inguruko trenbide sarea dago, baina trenak nahiko motelak dira.

-Errepideak nahiko baldintza onetan daude, baina gasolina nahiko garestia da.

-Saharako ibilbideak taldeetan egitea gomendatzen da.

-Janaria: ohiko platerren artean *chorba* eta *cous cousa* dira ohikoenak.

DERRIGORREZ EZAGUTU

BEHARREKOA:

- **HAMMAMET:** Oporretarako hiria da. Jende ospetsu askok bisitatzen du, hondartzak izugarri politak dituelako eta hotel eskaintza zabala duelako.


- **KAIROUAN:** Afrikako hiri musulmandar sakratuena da. Meca, Medina eta Jerusalem ostean mundu mailan dagoen laugarren hiri sakratua da. Fededunentzat Kairouanera lau bider bidaiatzea Mecara bisita bat egitea bezalakoa da. Murrak 1052. urtekoak dira eta medinak mezkita eta dorre ugari ditu.

- **MONASTIR:** Kostaldeko hiri turistiko txikia da. Bertan jaio zen Habib Bourguiba presidente ohia. Bertan da bere mausoleoa.

- **SFAX:** Tunisiako bigarren hiri handiena. Medina erraldoia dauka eta *souks* edo azoka asko ditu. Fosfatoen esportaziorako portu garrantzitsuena da.

Araba bixotzian

alfredo ibarra



San Adrianeko pasabidea (Zalduondo)

zutabea

Bertakoari so!



ERLANTZ

URTASUNen txokoa

Arabako amatxien zibilizazioa?

Aurreko hilabetean Arabako amatxi, amonen inguruan aritu ginen, hain zuzen ere duela 2000 urteko idazkun, inskripzioetan agertu diren emakumezko euskal izenak oroitarazteko asmoz. Bada, oraingo honetan ere honen gaineko gogoeta sakonxeagoa eskaini nahi dugu. Badakizu, irakurle, betiko moduan, gure helburu bakarra pentsaraztea, bertzerik ez baita.

Horrela, hainbatetan aipatu da ea "euskal zibilizazio" batez mintzatzen ahal denentz. Ene aldetik, honetaz bederen, Koldo Mitxelena bidelagun: "ez dakigunaz hobe dugu gauza handirik ez adieraztea...". Edonola ere, nola ahanzi Henri Saint-Blanquat frantses historialariaren hausnarketa erranguratsua? Izan ere, eta irakurri ahal izan dudan bere liburu baten "Surgen las guerras" atalean dioenez: "En Francia los yacimientos de hierro pirenaicos permitieron a una civilización desconocida durante mucho tiempo evolucionar al sur del río Garona, desde Burdeos hasta el Pirineo".

Ez dakit berarendako ezezaguna ote den; euskaldunondako ez, behintzat. Duela milaka urtetako Euskal Herriaz ari baita. Baina gakoa da, eta frantses egile batez ari gara, "zibilizazio" deitu diola gure aspaldiko horri. Ai ene... Hor da, dirudienez, gure Alejandriako Liburutegi galdua, jatorriko puzzlearen ulertzeko hamaika zati puxkaturik.

Egunotan, berriz, eta Gasteiz-Legutio bidean erdaldunduriko lehenagoko errepide seinal elebidunak ahanzi ezinean, komunikabideetan hedatzen ari diren on Kixote gora, on Kixote behera, Odon Apraiz ikerlariaren hitzak nagusitu zaizkit: "Kixote argitaratu zenean arabar gehienek Indiako Ramaiana bezala ulertuko zuten". Arabako amatxien zibilizazioa XXI. mendean berreraiki behar...

Zapo errea garaiko barazkitxoekin

PERTSONA BATENTZAT. OSAGIAK:

- 200 gr zapo garbi.
 - Tomate bat.
 - Boilur laurdena.
 - Perrexil-sorta laurdena.
 - Tipulin-sorta erdia.
 - 250 ml fumet.
 - Gurina.
- Saltsa egiteko*

2 leka, azenario erdi bat eta azalore bat (garaiaaren arabera aldatu daitezke)



Tomate kurruskaria:

Tomatearen pedunkulua kendu, beste aldean gurutze formako ebakia egingo dugu eta uretan irakingo ditugu, gero errazago zuritzeko. Atera eta izotz-uretan uziko dugu freskatzen. Zuritu, lau zati egin eta haziak kendu. Zati bat labean sartuko dugu, 100°C-tan, lehor dadin, ur gutzia galdu arte. Oliotan sartuta gordeko dugu.

Saltsa egiteko osagaiak:

Tomatearen gainerako zatiak dadotan zatituko ditugu. Boilurra brunnoise finean txikituko dugu eta olio estalita gordeko dugu. Perrexila eta tipulina txikitu.

Barazki salteatuak:

Lekak julianan zatitu, azenarioa torneatu eta azalorearen lore batzuk atera. Bakoitza bere aldetik egosi, ingeles eran, puntu-puntu utziz. Izotz-uretan sartu freskatzeko eta

paper xurgatzailearekin lehortu. Izozkailuan gorde mahaira atera arte.

Zapoa:

Solomoa atera eta zatitu.

Amaiera eta aurkezpena:

Zapoa gatzatu eta olio bero apur batekin zartagin on batean apur bat frijitu. Labean edo salamandraren azpian egiten amaitu. Gurin apur batean barazkitxoak frijitu. Plater baten erdian barazkitxoak jarri eta zapoa gainean, bi zatitan. Zapoa egin dugun zartaginean fumet beroa, boilurra eta tomatea bota. Irakiten utzi, saltsa loditzeko eta zapoak utzitakoak ondo jasotzeko. Gurin apur bat gehitu eta perrexila eta tipulina bota. Saltsa zapoaren gainean isuri eta tomate lehorra apaingarri gisa jarriko dugu, perrexil adartxo batekin eta tipulin adartxo batekin. Nahi izanez gero, plateraren ertzetan lurrunetan irekitako txirla batzuk jar daitezke.

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

GEUREKIN MENDIRA

OTSAILAREN 20AN

**FLOR,
UNIÓN
(1434 M)**

(*ARRATSALDEAN

ITZULTZEKOA)

ARDURADUNA:

KIKE-945140158

IRTEERA: GOIZEKO

9:00ETAN

LOVAINAN



GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN VI. IRTEERA

OTSAILAREN 27AN

UDALAITZ

IRTEERA: GOIZEKO 8:30EAN LOVAINA PLAZAN. KOTXEZ
INFORMAZIOA: 945222153 (GEU ELKARTEA - JOSUNE)

KULTUR ERROTA & KORRIKA KULTURALA

OTSAILAK 8 (asteartea) 20.30ean, PARRALEN

OTSAILAK 24, osteguna

J. M. Coetzee, Lotsaizuna, Elkar 2004

Hikaatenoan (Pintore kalea, 13), 20:00etan
Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea

Hurrengo saioan

eztabaidagai izango den

liburua: Pello Lizarralde,

Sargori, Pamiela 1994

Martxoaren 17a, osteguna



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure orduategia: 945222153 / geugaste@grn.es

Aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

- Orduategi guztiak: Leire. 656726701

- Arratsaldeak eta Gauez: Nerea. 658733934

- Asteburuak: Nagore. 945281124



Ezkerretik eskuinera: Elias Zumalde (EMUN), Xabier Azkue (ELHUYAR), Amaia Lasagabaster (Ikastaroaren koordinatzailea - Asmoz Fundazioa), Iñaki Martínez de Luna (Ikastaroaren zuzendaria) eta Patxi Alaña (ARTEZ)

LINGUANET lan munduko euskara planen inguruko 2005eko ikastaroa

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Emun, Elhuyar eta Artez elkarteekin elkarlanean antolatutako ikastaroa da.

Oro har lan mundua euskalduntzearena arlo oso garrantzitsua da euskararen normalizaziorako. Enpresetan lan handia egiten ari da, egun 110 enpresa daude euskara planetan murgildurik eta euskara lan hizkuntza gisa erabiliko dutenen kopurua gorantz doa. Hala ere, oraindik lan handia dago egiteko.

Sóziolinguistikako formazioa lan munduan ezinbestekoa da, ez soilik enpresetan diharduten teknikarientzat, baita enpresetako koordinatzaile, beste arlo batzuetan ari diren euskara teknikarientzat eta arloan lan egin nahi dutenentzat.

Halere, gizarateak ere eskatzen du jendea horretarako prestatzea, ez soilik lan munduko teknikariak, baizik eta orokorrean edozeinek euskara plana edo normalizazio prozesuaren berri izatea garrantzizkoa delako. Dena den, lan munduak gizartean duen garrantzia kontuan hartuta, premia horri erantzun asmoz antolatu dugu aurten bigarren aldiz Linguanet ikastaroa.

Gogoan izan, ikastaroak internetek eskaintzen dituen abantailak eta aurrez aurreko saioren hurbiltasuna uztartzen dituela. Alegia, ikastaroak dituen 50 orduetatik 35 ordu, internet bidezko ikasgaietan gauzatuko dira eta gainontzeko 15ak, 3 aurrez aurreko tailer praktikoaren bidez.

Beraz, ikastaroak pedagogikoki, formazio malgua, arina eta trinkoa eskaintzen du. Ikastaroa iaz egin zuten 57 ikasleek oso ondo baloratu zuten esperientzia hura eta horrek berresten du formazio ikastaro honen antolatzaile eta laguntzaileek zuzen zeudela ikastaroa diseinatu zutenean.

Inportantea da, bestaldetik, ikastaroa antolatzeko eta aurrera eramateko hiru enpresek, administrazioak eta fundazio batek elkarlanean jardun izana. Euskara planek eta normalizazio prozesuek aurrera egin dezaten elkarlanerako eredu hori erreferentzia izan daiteke, nonbait.

Amaia Lasagabaster. Asmoz Fundazioa



IÑAKI GOÑI



Alkatxofa frijituak txerri urdai, garaiko onddo, zigalaxo, arbendol txigortu eta udazkeneko zukuarekin.
Tubal jatetxea

Euskal produktuak gure sukaldean

Urtarrilaren **23**tik aurrera
egunero fitxa bat **DOAN** BERRIAREKIN



Jantzi mantala eta hasi sukaldean!



50 produktu 50 jatetxe

Fagollaga jatetxea, Zuberoa jatetxea, Mugaritz jatetxea, Akelarre jatetxea, Tubal jatetxea, Etxebarri erretegia, Hartza jatetxea, Argomaniz Paradorea, Borda Berri jatetxea, Currito jatetxea, Les Pyrénées jatetxea, Portalón jatetxea, Fronton jatetxea, Astelena jatetxea, Casa Nicolasa jatetxea, Aloña Berri jatetxea, Martínez jatetxea, Etxanobe jatetxea, Casa Manolo jatetxea, Elkano jatetxea, Kabia jatetxea, Izkiña jatetxea, Jokin jatetxea, Urepel jatetxea, Txoko jatetxea, Leloako Ostalaritza Eskola, Goizeko Kabi jatetxea, Don Pablo jatetxea, Zelai Zabal jatetxea, Etxeberri jatetxea, Pierre Oteiza jatetxea, La Cuchara de San Telmo jatetxea, Casa Julian jatetxea, Etxalarko fonda, Morase jatetxea, Aratz jatetxea, La Boule jatetxea, Ramon Roteta jatetxea, Baserri jatetxea, Hotel Europa jatetxea, Etchepare hotela, Euskal Biskotx erakustokia, Bakea jatetxea, Las Torres ostatu-jatetxea, Alhambra jatetxea, Dolarea jatetxea, Angelita Alfaro, Zortziko jatetxea, Labekoa jatetxea.

Laguntzaileak:

FAGOR



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Euskaldunok behar dugun

berria

